

2021eko otsaila



HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEA AFRIKAN

Abdoul Alpha Dia

4 KALITATEZKO
HEZKUNTZA



ancefa
Education For All



Réseau Ouest et Centre Africain de Recherche en Education
Educational Research Network for West And Central Africa

educoco
Member of ChildFund Alliance

HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia

G GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LABURPEN EXEKUTIBOA

AURKIBIDEA

PARTE 1 - EDUCACIÓN EMANCIPADORA

1.1	ZER DA EMANTZIPAZIOA?	6
1.2	EMANTZIPAZIOA HEZKUNTZAN	7
1.2.1	Zer da hezkuntza?	7
1.2.2	Hezkuntza eta emantzipazioa	8
1.2.2.1	Hezkuntza emantzipatzailearen definizioa	8
1.2.2.2	Hezkuntzan emantzipazioari buruzko pentsalariak	8
1.3	HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEAREN DIMENTSIOAK	11
1.3.1	Autonomia eta espiritu kritikoa bultzatzen dituen hezkuntza	11
1.3.2	Hezkuntza humanista (edo humanizatzailea)	11
1.3.3	Askatu egiten duen hezkuntza	12
1.3.4	Demokraziaren aldeko eta demokraziarako hezkuntza	13
1.3.5	Berdintasunerako hezkuntza	13
1.3.6	Hezkuntza deskolonizatzailea	14
1.4	HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEAREN ESPERIENTZIA BATZUK: LATINOAMERIKAREN KASUA	15

2. ATALA - AFRIKA ETA HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEA

2.1	AFRIKAKO HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEA	16
2.1.1	Afrikako hezkuntza tradizionalaren oinarriak eta teknikak	16
2.1.2	Hezkuntza tradizionala Afrikan: hezkuntza emantzipatzailea?	18
2.2	AFRIKAKO HEZKUNTZAREN ARLOKO PENTSALARIAK	21
2.2.1	Joseph Ki-Zerbo	21
2.2.2	Julius Nyerere	21
2.3	AFRIKAN HEZKUNTZA BIRPENTSATZEA/ALDATZEA?	22
2.3.1	Afrikako hezkuntzaren balantzea, independentzia lortu eta 60 urtera	22
2.3.2	Zergatik eta nola aldatu hezkuntza Afrikan?	23

3. ATALA - HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEAREN ESPERIENTZIAK AFRIKAN (KASUEN AZTERKETA)

26-39

3.1	DAARAY SEMBÈNE (SENEGAL): HERRI-HEZKUNTZA ETA IRUDIAREN PEDAGOGIA	26
3.1.1	Aurkezpen orokorra	26
3.1.1.1	Proiektua (deskribapena)	26
3.1.1.2	Historikoa / Jatorria	26
3.1.1.3	Ikuspegi metodologikoa	27
3.1.1.4	Inklusibitatea	28
3.1.1.5	Finantzaketa eta eredu ekonomikoa	29
3.1.2	Ebaluazioa	29
3.2	AKAZI KANOZE ACCESS: ESKOLATU GABEKO GAZTEEN PRESTAKUNTZA (RUANDA)	32
3.2.1	Aurkezpen orokorra	32
3.2.1.1	Proiektua (deskribapena)	32
3.2.1.2	Historikoa / Jatorria	32
3.2.1.3	Ikuspegi metodologikoa	33
3.2.1.4	Inklusibitatea	33
3.2.1.5	Finantzaketa eta eredu ekonomikoa	34
3.2.2	Ebaluazioa	34
3.3	BESTE ESPERIENTZIA BATZUK	36
3.3.1	Malikaren Daraa (Senegal)	36
3.3.2	Bigarren Aukerako Eskola (Etiopía)	37
3.3.3	Kabakoo, ikasketa klasikoen planak osatzen dituen eskola (Mali).....	37
3.3.4	Sésame, unibertsitaterako sarbidea irekitzen duen programa (Madagascar) 38	

4. ATALA - EZTABAIDAK ETA GOMENDIOAK

40-41

4.1	EZTABAIDAK: EMANTZIPAZIOA ABIAPUNTU IZANIK, AFRIKAKO HEZKUNTZA ETA ERREFORMAK BERRIZ ERE ZALANTZAN JARTZEA	40
4.1.1	Afrikako eskola: transmititzearen eta emantzipatzearen arteko etengabeko tirabirak	40
4.1.2	Eskolatzearen arrakasta, ez duena zertan eskolarena izan	40
4.1.3	Gaitasunen ikuspegira itzuli?	41
4.1.4	Emantzipazioa: Afrikako eskolarentzako proiektu politikoa ote?.....	41
4.2	GOMENDIOAK	42

ONDORIOAK

45

SARRERA

Hezkuntza, jarduera gisa (ez sistema antolatu gisa), mundua bezain zaharra da. Beti egokitu izan da garaian garaiko ezaugarri ekonomiko, sozial, politiko eta teknologikoetara. Nahiz eta hezkuntzak asko eboluzionatu duen, bada aldatu ez den zerbait: **zibilizazioaren oinarriko egintzetako bat da; izan ere, hezur-haragizko izaki bat, hasiera batean behintzat, bizitzarako hobeto prestatutako pertsona bihurtzean datza:** izan ere, «bizitzen irakastea» da hezkuntza ororen oinarriko helburu nagusia.

Eskola-erakundea imajinario komun boteretsu baten oinarria da, etengabe elikatzen eta berrikusten dena. Igurikimenak, itxaropenak eta proiektzioak etorkizuna (zati batean behintzat) erabakitzen den agertoki horretan sendotzen dira, edo egiten diote aurre elkarri. Umeen etorkizuna, jakina, baina, baita hedaturaz ere, munduaren etorkizuna. Souleymane Bachir Diagne-ren hitzetan «*eskola etorkizuna eraikitzen den fabrika da*».

«*Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta guztiontzako bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea*» da hemendik 2030era ere nazioarteko komunitatea gaur egun Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) bidez mugiarazten duten konpromisoetako bat (GJH4). Hala ere, GJH4ri (Milurtekoko Garapen Helburuak) dagokionez, Afrika egoera berezian dago. Kontinenteko ia 75 milioi haurrek eskolatu gabe jarraitzen dute, eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde asko lehen hezkuntzarako sarbide unibertsala lortzetik urrun daude. Eskolara joateko aukera dutenentzat, ikaskuntzaren kalitatea nahiko kaskarra da: eskolatutako haurren % 93k ez dituzte eskuratu irakurtzeko oinarriko gaitasunak, ezta matematikako gaitasunak ere % 86k. Ere berean, gazteen sektore oso batzuek hezkuntza-sistematik kanpo jarraitzen dute: 6 eta 11 urte bitarteko haurren bosten bat baino gehiago eskolatu gabe dago, 12 eta 14 urte bitarteko haurren ia heren bat, eta 15 eta 17 urte bitarteko gazteen ia % 60. Neskei bereziki eragiten die bazterkeriak: adibidez, nesken % 40k baino gutxiagok amaitzen du bigarren hezkuntza. Badira beste desberdinkeria gehiago ere, batez ere desgaitasunak dituzten haurrentzat, premia bereziak dituztenentzat, gutxiengo etnikoetakoentzat, gatazkaeremuetan bizi direnentzat, familiak ezegonkortasun-egoeran dituztenentzat, eta abarrentzat.

Gainera, eskolaren instrumentalizazio gero eta nabarmenagoaren aurrean (mundu osoan, ez Afrikan soilik), erabakigarria izan daiteke berriz ere beste helburuen garrantzia aitortzea; hala nola: emantzipazioa, herritartasuna edo integrazioa. Izan ere, hezkuntzak prozesu luzea izaten jarraitu behar du; hau da, norbaitengan guztion onerako diren adimena, balioak eta portaerak azalertzeko aukera eman behar du.

Erabakigarria izan daiteke berriz ere beste helburuen garrantzia aitortzea; hala nola: emantzipazioa, herritartasuna edo integrazioa.

Gainera, hezkuntzak elkarrekin bizi eta jardutea ahalbidetuko digun giroa bultzatu behar du, eta, horretarako, subjektu aske eta erabat arduratsuak garatzea sustatu behar du.


Kezka horiek dira Afrikako hezkuntza emantzipatzaileari buruzko txosten honen oinarriak. Txosten hau ANCEFAk enkargatu du (*Africa Network Campaign on Education For All*, edo Afrikako Sarearen Guztiontzako Hezkuntzari buruzko kanpaina, «*Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina: hezkuntza sustatzea toki eta mundu mailan gizartea eraldatzeko (EpTS)*» proiektuaren

esparruan), eta ANCEFAren eta Educo Fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza da. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatu du. Txosten hau egiteko, elkarte bat sortu da ANCEFAren eta ROCARE Senegalerako koordinatzaile nazionalaren (Mendebaldeko eta Erdialdeko Afrikako Hezkuntzaren Ikerkuntza Sarea) artean.



1. ATALA

HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEA



1.1 ZER DA EMANTZIPAZIOA?

Definizioa

Eguneroko hizkuntzan, emantzipazioa da lotura batetik, oztopo batetik, mendekotasun-egoera batetik, menderatzeegoera batetik edo aurreiritzi batetik askatzeko ekintza (*Larousse*). Zentzu orokorragoan, emantzipazioa honela defini daiteke: tutoretza bat abandonatzea edo tutoretza horretatik askatzea. Emantzipazioaren esanahi horiek *ducere* hitzaren latinezko etimologiara eramaten gaituzte, literalki «nonbaitetik ateratzea» esan nahi duena. Emantzipazioa, zentzu zabalean, botere edo menderatze batetik askatzea bezala uler daiteke. Emantzipazio horrek gizabanako bati edo talde bati eragin diezaioke.

Emantzipazioari buruzko lehenengo pentsalariak

Emantzipazioak urrutiko pentsamendu-sistemetan du jatorria. *Emantzipazio* kontzeptuaren hasiera eta bilakaera markatu zuten lehenengo pentsalarien artean honako hauek aipa ditzakegu: Etienne de La Boétie (XVI. mendea), Nicolas Condorcet (XVIII. mendea) eta Karl Marx (XIX. mendea).

Emantzipazioa aztertzeko zenbait ikuspegi

Hainbat ikuspegi daude emantzipazioa aztertzeko. Adibide gisa, azterketa juridiko, filosofiko eta sozioekonomikoaren ikuspegiak aztertuko ditugu.

Ikuspegi juridikoa

Emantzipatu hitzak jurisprudenzian du jatorria, eta nahiko esanahi arkaikoa du. Izan ere, *emancipare* latinetik dator, «e» pribatiboak eta «*mancipare*» terminoak osatutako termino juridikoa da. Emantzipazioaren modu solemnearen arabera saltzea, eskuarekin hartzea, jabetza-eskubideari lotutako ekintza esan nahi du. *Mancipare mancepsetik* (saltzaile, esleitzaille) dator, eta *manus* (eskua) eta *capere* (hartu) terminoek osatzen dute: eskuarekin hartzen duena.

Antzinatean, emantzipazioa, lehenik eta behin, esklabotzari lotu zitzaion. Hala ere, kontua ez zen esklabotzatik askatzea; izan ere, batez ere Grezian, esklabo jaiotzen zena betiko zen esklabo. Erromatarren garaian, esklaboak salmenta-eskubidetik askatzeko ideia azaldu zen. Hizkera juridikoan, «emantzipatutako adingabea» terminoa erabiltzen da jada gurasoen tutoretzapean ez dagoen adingabe bat izendatzeko, eta, ondorioz, adingabetasunetik adinnagusitasunera igarotzea esan nahi du.

Ikuspegi filosofikoa

Nahiz eta hasiera batean emantzipazioak nagusi batek bere esklabo bat askatzeko legeko egintza adierazten zuen, terminoak laster hartu zuen esanahi metaforikoa. Era batera edo bestera, gizaki guztiak dira esklabo: beren grinen, ohituren, beldurren esklabo, baina baita ezagutzaren, indarraren edo maltzurkeriaren bidez menderatzen dituzten beste gizaki batzuen esklabo ere. Denek dute nagusi bat, edo gehiago. Denek dute emantzipatzeko aukera.

Emantzipazioak nor bere buruaz, bere aukerez, bere anbizioez, bere arrakastez eta porrotez arduratzea esan nahi du. Hortaz, emantzipatzea menderatzeetatik askatzea da.

Denborak aurrera egin ahala, *emantzipazio* terminoaren erabilera zabaldu egin da, eta apurka-apurka bereganatu du agintea alde batera utzi eta autoritatetik askatzearen nozioa; horrela, gizartea eraldatzeko eragile bihurtu da.

Denborak aurrera egin ahala, *emantzipazio* terminoaren erabilera zabaldu egin da, eta apurka-apurka bereganatu du agintea alde batera utzi eta autoritatetik askatzearen nozioa; horrela, gizartea eraldatzeko eragile bihurtu da.

Emantzipazioak, berez, borroka-mendeak laburbiltzen ditu: kolonietako borroketatik hasi eta emakumeen, langileriaren edo pentsamenduaren emantzipazioaren aldeko borrokara.

Ikuspegi sozioekonomikoa

Ikuspegi sozioekonomikoaren arabera, emantzipazioa, lehenik eta behin, ordaindutako jarduera batekin lotu zen: gizabanakoen artean, independentzia ekonomikorako igurikimena ez ezik, garapen sozial eta pertsonalerako igurikimena ere sortzen duena. Hala ere, laurogeiko hamarkadatik aurrera, zalantzan jarri zen lotura hori, eta menderatze ekonomikoa betiketzen duten egitura ekonomiko, politiko, juridiko eta sozialen erabateko eraldaketara bideratu ziren azterketak: *ahalduntze* gisa ezagutzen den ikuspegia da.

1.2 EMANTZIPAZIOA HEZKUNTZAN

1.2.1 Zer da hezkuntza?

Durkheim-en arabera, 1922an, «*hezkuntzaren zeregina da haurraren gizarte politikoak, oro har, eta xede duen ingurune bereziak eskatzen dizkioten egoera fisiko, intelektual eta moral batzuk sortzea eta garatzea*». Moumouni-ren arabera (1998), gizarte guztietan hezkuntzak eta irakaskuntzak «*beti izan dute oinarrizko helburutzat hartzaileak prestatzea, gizarte-bizitzara egokitu daitezen, esleitzen zaien edo esleituko zaien zeregina ahalik eta hobekien betetzeko, eta eurengan gizarteak behar dituen ezaugarri, potentzial eta gaitasun indibidual guztiak garatzeko*». Honela ere **defini daiteke hezkuntza: komunitate jakin bateko kideen sozializazio-prozesua, euren bitzita sozialerako beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak eskuratu ditzaten**. Ezagutzak ingurune fisikoan bizirauteko informazio baliagarriaz osatzen dira: ingurune fisikora egokitu, hura kudeatu eta, are gehiago, eraldatzea. Trebetasunak ekoizpenerako behar diren ezagutza teknikoak dira, eta jarrerak, berriz, gizartearen balio sozialak eta kulturalak, hau da, jakitea zer den ona edo txarra, zer nahi den eta zer ez den nahi.

Hezkuntza prozesu bat ere bada, eta, prozesu horren bidez, gizakia, izaki biologikoa den aldetik, gizaki bihurtzen da kultur izaki gisa. «Gizakia da hezi behar den izaki bakarra» (Kant). Beraz, hezkuntza humanizazio-prozesu bat da. Gainera, Sokratesek zioen bezala, «hezkuntza sugar bat piztea da, ez ontzi bat betetzea». Hezkuntza, hitzaren latinezko etimologia (*ex-ducere*) gogoratzen badugu, «gidatzea», «nonbaitetik (iluntasunetik, ezjakintasunetik) ateratzea» da, ezagutza, jakintza eta argia eskuratzeko aukera emateko.

1.2.2 Hezkuntza eta emantzipazioa

1.2.2.1 Hezkuntza emantzipatzailearen definizioa

Oscar Jararen arabera, «hezkuntza emantzipatzaileak giza ahalmena eta gaitasunak askatzen dituen praktika gisa pentsatu eta gauzatu nahi du. Pertsonak subjektu eraldatzaile gisa eta ez objektu gisa eratzten dituen prozesutzat hartu behar da hezkuntza. Bere ustez, hezkuntza prozesu integral eta iraunkorra da, eta, ondorioz, eskolatik eta eskolasistematik harago doa hezkuntza. Azkenik, hezkuntza emantzipatzaileak prozesu integral, askotariko, ireki, kritiko, parte-hartzaile, ludiko eta sortzaileen arabera pentsatzera eta heztera eramaten du; izan ere, bizitzaren eta gizartearen maila eta dimentsio guztietan botere-harremanak demokratizatzeko prestakuntzan parte hartzen dute prozesu horiek guztiek».

Brassat-ek (2013) eskola emantzipatzailea definitzen laguntzen duten sei proposamen eskaintzen ditu: (i) ikasketaren bidez diziplinatu behar da, burua inpulsiotasunetik eta muga gabeziatik askatzeko. (ii) Libre izateko beharrezkoa da ezagutu ahal izatea. (iii) Heziketa orokorrak, diziplina intelektual koherentea den aldetik, adimenaren ariketa kritikoa lantzen du, eta, horrenbestez, pertsona independenteago izatera eramaten du. (iv) Gizakiaren askatasuna bere adimen arrazionalaren araberakoa da, eta hezi eta entrenatu egin behar da. (v) Adimenaren ariketa arrazionala, batez ere, pentsamendu zientifiko experimental edo frogazkoaren forma zorrotzek baldintzatzen dute. (vi) Zientzia zehatzetan antolatutako heziketa orokor batek baino ezin dezake sinesmen, ilusio eta obskurantismotik askatu.

Grootaers-en eta Tilman-en arabera (2009), hezkuntza emantzipatzailea izango da baldin eta pertsonak autoritate, menderatze eta botere batetik askatzeko dituzten ezagutzak eta gaitasunak garatzen baditu.

Hezkuntza emantzipatzailea izango da baldin eta pertsonak autoritate, menderatze eta botere batetik askatzeko dituzten ezagutzak eta gaitasunak garatzen baditu.

Hezkuntza emantzipatzailea, era berean, izakiaren gizatasuna osatzen duten ezaugarriak, bereziki pertsonaren izaera juridikoa, gizagabetzen ez dituen hezkuntza ere bada.

1.2.2.2 Hezkuntzan emantzipazioari buruzko pentsalariak

Nicolas Condorcet: aitzindaria

Nicolas Condorcet (1743-1794) politikari, filosofo eta matematikari frantsesari zor diogu, batetik, herritar emantzipatuaren kontzeptua sartu, eta, bestetik, emantzipazioaren arloan hezkuntza-sistema berrikusteko oso proiektu interesgarria formulatu izana. Condorceten arabera, hezkuntzak «baliabideak eman beharko lizkieke giza espezieko gizabanako guztiei beren beharrak asetzeko eta ongizatea lortzeko, beren eskubideak ezagutu eta gauzatzeko, beren betebeharrak ezagutu eta betetzeko, horietako bakoitzak bere lanbidea hobetu ahal izateko, eta esleitu ahal zaizkion funtzio sozialak betetzeko trebakuntza izango duela ziurtatzeko, naturatik jasotako talentu guztiak garatze aldera; horrela, izatezko berdintasuna ezarri eta legeak aitortutako berdintasun politikoa errealitate bihurtu ahalko da».

Pedagogia kritikoaren teorikoak

Paulo Freire da XX. mendearen bigarren erdialdeko pedagogia kritikoan eragin handiena izan duen hezitzaileetako bat. Bere pedagogia kritikoa eraldaketa sozialaren zerbitzura dago. Freirek kontzientzia hartzeko eta askatzeko prozesu gisa ikusten zuen hezkuntza.

Paulo Freireren «kontzientziazio» prozesuak eragin handia izan zuen (eta izaten jarraitzen du). «Zapalduaren pedagogia» alfabetatzean oinarritzen da, eta «banku-hezkuntza» deitutakoari kontrajartzen zaio; izan ere, hezkuntza horren bidez, aurrez ezarritako ezagutzak ezarri nahi zaizkie kontzientzia kritikorik ez duten izakiei. Pedagogia kritikoak ez ditu inoiz bereizten arlo pedagogikoa eta arlo soziala: «*Inork ez du inor hezten, inork ez du bere burua hezten, gizakiek beren artean hezten dute elkar, mundua bitartekari delarik*» (Freire). Paulo Freireren *Zapalduen pedagogia* tesi honetatik abiatzen da: ezinezkoa da gizabanakoaren emantzipazioaren alde borrokatzea, baldin eta hezkuntzaren helburua ez bada emantzipazio soziala.

Freireren lanaz geroztik, pedagogia kritikoan inspiratutako hainbat korronte sortu eta garatu dira; besteak beste, honako hauek:

- **Arauren pedagogia kritikoa.** Pedagogia kritikoaren korronte eskandinaviar honek desegin egiten ditu pribilegioak, bereziki genero-arauei, kapatizismoari edo arrazakeriari lotutakoak
- **Arrazaren pedagogia kritikoa.** Ikuspegi honek desegin egin nahi du pribilegio zuria arrazakeriari aurre egiteko.
- **Kulturarteko pedagogia kritikoa.** Catherine Walsh-ek garatu zuen, eta kritika dekoloniala barne hartzen duen ikuspegia da.
- **Ekopedagogia.** Pedagogia kritikoaren korronte honek gai ekologikoak eta kontzientzia ekologiko global baten sorrera jorratzen ditu bereziki.
- **Justizia sozialerako hezkuntza.** Justizia sozialaren alde borrokatzen den hezkuntzaren arloa da; horretarako, sentsibilizatu egiten ditu ikasleak euren artean nahasten diren zapalkuntzei buruz, eta justizia sozialaren alde mobilizatzen bultzatzen ditu, lehen hezkuntzatik unibertsitate bitartean.
- **Pedagogia interseksionala.** Pedagogia kritikoaren korronte honek *queer* pedagogiak, arrazaren kritika, pedagogia feminista, marxista (zapalduaren pedagogia) eta abar sintetizatu nahi ditu.
- **Pedagogia kritiko feminista.** Pedagogia feministaren barruan hainbat korronte daude. *Kritiko* terminoa gehitzeak argi uzten du kontzeptu hori bat datorrela Paulo Freireren eraldaketa sozialaren ideiarekin ikuspegi materialista izanda.
- **Multikulturalismo postmodernoa.** Pedagogia kritikoaren egile batzuek, Joe Kincheloe-k besteak beste, aniztasuna baloratzen duten ikuspegiak hautatu dituzte. Ikuspegi horiek teoria postmodernoetan oinarritu dira batik bat, eta ez ikuspegi materialista batean.
- **Edukien pedagogia sozio-kritikoa.** Korronte hau Libanêo didaktika arloan espezializatutako pedagogo kritikoak abiarazi zuen Brasilen. Edukien garrantzia eta edukiak ikasleen gizarte-baldintzekin lotzeko beharra azpimarratzen du korronte honek.

- **Queer pedagogia.** LGBTI pertsonen diskriminazioaren aurkako borrokan oinarritzen da. *Queer* pedagogia kritikoa da inklusioaren nozioarekin; izan ere, badirudi *queer* pertsoneri eta desgaitasuna duten pertsoneri leku marjinala baino ez diela ematen.
- **Pedagogia kritiko iraultzailea.** Peter McLaren-ek termino hori erabili zuen bere pedagogia aldi berean marxista eta dekoloniala deskribatzeko.
- **Erresistentziaren teoria.** Henry Giroux-ek garatu zuen 80ko hamarkadan Estatu Batuetan, eta, erresistentziaren teoriaren arabera, klase arteko borrokarako gunea da eskola.

Pedagogia emantzipatzailea

Pedagogia emantzipatzailea honela defini daiteke (Grootaers eta Tilman, 2009): hezkuntza-jardueraren ikuskera eta praktikak, gizabanakoek eta menderatutako gizarte-taldeek boterea eta jarduteko autonomia eskuratzeko aukera izatea helburu dutenak (gizarte-helburuak). **Zer ezaugarri ditu pedagogia emantzipatzaileak, lortu nahi diren helburuei eta espero diren emaitzei dagokienez?** Honako hauek dira galdera horri erantzuteko irizpide batzuk (Grootaers eta Tilman, 2009):

- **Pedagogia bat emantzipatzailea da,** baldin eta etorkizuneko irudikapenak aldatzen baditu eta perspektibarik eza edo balizko patuaren ikuspegi fatalista apurtzen baditu.
- **Pedagogia bat emantzipatzailea da,** baldin eta indarrean dauden logika sozialen irudikapenak aldatzen baditu eta horiek ezinbesteko indarrak direlako ideia apurtzen badu (jarduteko, ez da nahikoa amets egitea).
- **Pedagogia bat emantzipatzailea da,** baldin eta norbanakoak edo menderatutako taldeak bere buruari, gaitasunei, ahalmenei eta potentzialei buruz dituen irudiak aldatzen baditu.
- **Pedagogia bat emantzipatzailea da,** baldin eta pertsoneri eraginkortasunez jardun ahal izateko tresnak ematen badizkie.
- **Pedagogia bat emantzipatzailea da,** baldin eta oinarritzko mekanismo intelektualak garatzen baditu. Aurreko helburuak lortzeko, beharrezkoak dira gutxienezko ezagutza kognitibo batzuk (irakurtzea, idaztea, kalkulatzeko, induzitzea, deduzitzea, alderatzea, sintetizatzea, aztertzea, formalizatzea, egiaztatzea, metodo bat edukitzea, etab.).
- **Pedagogia bat emantzipatzailea da,** baldin eta komunikatzeko eta adierazteko gaitasuna garatzen badu; hitza erabiltzeko gaitzen badu.
- **Pedagogia bat emantzipatzailea da,** baldin eta menderatuei nortasun berri bat osatzen uzten badie; jarraitutasunari eutsi eta, aldi berean, aurreko nortasuna apurtzen badu; eta beren proiektua eta ingurunea kontuan hartzen badu. Emantzipatzea eta tutoretzetatik askatzea norberaren nortasuna aldatzea da, bere nortasuna birdefinitzea.

Pedagogia emantzipatzailea honela defini daiteke (Grootaers eta Tilman, 2009): hezkuntza-jardueraren ikuskera eta praktikak, gizabanakoek eta menderatutako gizarte-taldeek boterea eta jarduteko autonomia eskuratzeko aukera izatea helburu dutenak (gizarte-helburuak).

1.3 HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEAREN DIMENTSIOAK

1.3.1 Autonomia eta espiritu kritikoa bultzatzen dituen hezkuntza

Hezkuntzaren helburuetako bat bada beren kabuz pentsatzeko eta askatasunez jarduteko gai diren pertsonak prestatzea (alderdi interesdun guztiek alde aurretik adostutako helburuen esparruan), horrek esan nahi du haien autonomia eta espiritu kritikoa apurka-apurka garatu behar direla.

Albert Thierry-ren (1964) arabera, «**ikaslearen hezkuntzak espiritu kritikoa eta zientifikoa indartu behar du, ikaslearen ezagutzarekiko eta kontrolaren beharrarekiko gogoia sortu;**

Hezkuntzaren helburuetako bat bada beren kabuz pentsatzeko eta askatasunez jarduteko gai diren pertsonak prestatzea horrek esan nahi du haien autonomia eta espiritu kritikoa apurka-apurka garatu behar direla.

ikaslea bere kabuz moldatzera, bere kabuz jardutera, bere buruaren jabe izatera ohitu behar du». Martha Nussbaum filosofo estatubatuarren arabera, hezkuntzak ikasleen pentsamendu kritikoa garatu behar du, euren kabuz pentsa dezaten. Pentsamendu kritikoa bi elementu ditu (Jacques Boisverts, 1999). Lehenengoa espiritu kritikoa da, gizabanakoa kritiko izatera daraman jarrera-multzo bat. Espiritu kritikoa jarrera intelektualaren araberakoa da, pentsalari kritikoa gai bati aurre egitean hartzen duen gogo-aldartearen araberakoa. Beharrezkoa da, halaber, tresna kritikoa izatea (bigarren elementua), gizabanakoak pentsamendu kritikoa behar bezala gara dezan, baieztapenak ebaluatu eta arrazoietan oinarritutako iritziak eman ditzan; hau da, iritzi horiek sinesgarritzat, fidagarritzat eta egokitzat jotzeko aukera ematen duten irizpideak.

Praktika emantzipatzaile bat bere ondorioetatik abiatuta defini edo identifika daiteke, autonomiaren garapenetik hasi eta eragiten duenetik abiatuta; hau da, ikasleek eskolan ikasitakoa euren bizitza profesionalean erabil badezakete, helduen presentziarik gabe ulertzeko eta jarduteko gai badira, euren buruaren jabe badira eta euren kontzientziaren arabera jarduten badute, euren eskubideak eta betebeharrak ezagutzen badituzte. Jarduera emantzipatzaileak ikasleen gaitasun kritikoa ere garatzen ditu, eta urrats bat atzera egiten, jarraibideak saihesten, euren kabuz pentsatzen eta euren burutik harago ikusten laguntzen die, aukeramenaren eta autonomiaren alde eginez.

1.3.2 Hezkuntza humanista (edo humanizatzailea)

Hezkuntza humanizazio-prozesu bat da. Humanizatzea subjektu moral gisa jarduteko gai izatera iristea da.

Hezkuntza humanistak, lehenik eta behin, **irudimen enpatikoa izatea eskatzen du, munduko herritar gisa pentsatzea; gizateriari, dagoen tokian dagoela, antzemateko gai izatea; beste zibilizazioekiko jakin-mina sentitzea; eta kultura-desberdintasunekiko sentikorrago izatea** (Nussbaum, 2011). Irudimen enpatikoa bide eman dezake bestearen perspektiba irudikatze.

Horretarako, baliagarria izan daiteke, halaber, humanitateak eskola-programa osoan sartzea, lehen hezkuntzatik hasi eta unibertsitateraino. Nussbaumen arabera, literaturak, antzerkiak, dantzak eta arteek ongi baino hobeto bete dezakete funtzio hori, giza esperientziaren funtsezko alderdiak azaleratzen baitituzte, eta alderdi horiek ez lirarteke nabarmenduko arrazoiaren ikuspegi abstraktuegi batean.

Gainera, gehiago hartu behar da kontuan emozioek eta irudimenak hezkuntzan duten zeregina. Emozioen hezkuntza eta emozioen *bidezko* hezkuntza. Gandhik esaten zuen justiziaren aldeko borroka norberaren baitan hasten zela, non errespetuak eta errukiak aurre egin behar baitzieten beldurrari, gutiziari eta agresibitate nartzisistari.

Hezkuntzak, soilik ezagutzak transmititzera mugatu beharrean, besteen izateko, sentitzeko eta pentsatzeko modua sustatu behar du, eta, horretarako, autoezagutzaren bidez potentzial intelektualak, emozionalak eta espontaneoak garatzea ahalbidetu behar du. Ildo horretan, gozotasuna eta maitasuna hezkuntzaren zeharkako printzipio etikotzat hartu behar dira.

Hezkuntzak, soilik ezagutzak transmititzera mugatu beharrean, besteen izateko, sentitzeko eta pentsatzeko modua sustatu behar du, eta, horretarako, autoezagutzaren bidez potentzial intelektualak, emozionalak eta espontaneoak garatzea ahalbidetu behar du.

Albert Banduraren arabera (2019), arrakasta izateko, haur batek ez du izan behar koefiziente intelektual altua, baizik eta sinesmena garatu behar du bere buruarengan.

1.3.3 Askatu egiten duen hezkuntza

Hezkuntza emantzipatzaileak kontzientzia kritikoa sustatzen du, eta, ondorioz, askatu egiten du. Beraz, emantzipazioa, gizakien liberazioa, funtsezkoa da hezkuntzaren proiektuan eta ekintzan. Hezkuntza emantzipatzailearen helburua da giza potentzialak eta gaitasunak askatzea, gizakiak berezko dituen indarrak askatzea. Askatzea, pentsatzea eta askatasunez jardutea etengabeko ikaskuntza-prozesua da.

Paulo Freireren arabera, **hezkuntza askatasunaren praktika gisa gauzatu behar da; hezkuntzaren oinarri den pedagogiak lagundu egin behar du «zapalduak» euren historiaren aktore izan daitezen, euren burua deskubritzeko eta subjektu aske gisa kokatzeko baldintzak lortzen.** Hezkuntza emantzipatzaileak lagundu egin behar die pertsoneri zapalkuntza mota guztiak gainditzen, eta beren bizitzari eta errealitateari zentzua eta esanahia ematen. Oscar Jarak honela adierazten du: «zapalkuntza orotatik askatzen gaituen eta gure potentzial guztia askatzen duen hezkuntza».

Hezkuntza emantzipatzailea, gizakiaren indar eta potentzialak askatzea helburu izanik, arazo sozial zabal batean kokatzen da. **Alienazio-mekanismoen eta edozein menderatze-motaren aurka egiten du.**

Horregatik guztiagatik, P. Freirek dio pedagogia emantzipatzailearen lehen etapan «kontzientziazioko» hezkuntza-lana sartu beharko litzatekeela. Kontzientziazioa borondatezko prestakuntza-prozesu bat da, antolatua eta lagundua, non subjektuak atzerapauso bat ematen baitu eta bere menderatzearen alderdi barneratua modu objektiboan hartzen baitu. Prozesu horren oinarria, batetik, informazioa eta datu sozial objektiboak lortzea da, eta, bestetik, berarengan eragiten duten mekanismo psikologikoak eta arau kulturalak azaltzea, gehienetan inkontzienteki.

Henry Giroux-ek 80ko hamarkadan Estatu Batuetan garatu zuen erresistentziaren teoriaren arabera, **klase arteko borrokarako espazio bat da eskola, eta irakaslea ez da teknikari hutsa, «intelektual eraldatzailearen» papera bete behar baitu.**

1.3.4 Demokraziaren aldeko eta demokraziarako hezkuntza

Eskolaren zereginetako bat da bizikidetzaren oztopoak konpontzea. Horretarako, erabakiak demokratikoki hartzearen bertutea irakatsi behar die ikasleei. Ildo horretan, eskolak estatu demokratiko batean bizi garela (edo bizi behar dugula) gogorarazteaz gain, beharrezkoa bada, ideal demokratikoa berrasmatu behar du.

Gazteei aukera eman behar zaie eskola-espazioak ahalik eta lasterren kudea ditzaten euren beharren arabera, pedagogiarik gabeko eskola-espazio gisa. Eskola-gobernuak sortze hutsetik harago joan behar da, eta hezkuntza-sektorean aurrera egin behar da erabakiak hartzeko prozesuen demokratizazio handiagorantz. Gobernantza demokratikoak araua izan behar du (eta ez salbuespena) eskoletan.

Gobernantza demokratikoak araua izan behar du (eta ez salbuespena) eskoletan.

1.3.5 Berdintasunerako hezkuntza

Azterketa orokorra

Berdintasunaren ikuspegitik, erronka eta helburu nagusia da xede hauek dituen tresna bihurtzea eskola:

- **Emantzipazio sozialeko tresna**, bakoitza bere jatorrizko ingurunearen mendekotasunetik askatu ahal izateko eta, eskolaren bidez, gurasoek betetzen dituzten posizioez bestelakoetara iristeko, bere plan eta gaitasunen arabera.
- **Gizartean bizitzeko prestaketa-tresna**, gizartean integratzeko eta zeregin aktiboa izateko behar diren trebetasunak guztiek menderatzen dituztela bermatzeko.
- **Gizarte-justiziarako tresna**, eskubide-berdintasuna eta hezkuntza-ondasunen bidezko banaketa eta banaketa ekitatiboa (eskuragarritasunari, arrakastari, ibilbideei edo lorpenei dagokienez) lortu nahi dituen gizarte baten antolaketa kolektiboaren printzipio gisa.
- **Gizarte-kohesiorako tresna**, jatorri guztietako gazteak elkartzeko, elkartasun-sentimendua indartzeko eta kontzientzia kolektiboa sortzeko aukera ematen duen azken arragotzat hartuta eskola.
- **Gizartea eraldatzeko tresna**, gazteek guztion onerako lan egin dezaten, zentzu kritikoz eta sormenez, eta bizi behar duten gizartea hobetzen lagun dezaten.

Eskolak eragindako bazterkeria-prozesuaren eta emantzipatzeko duten gaitasunetan konfiantza galtzearen aurrean, geure buruari galdetu egin behar diogu zein harreman dagoen eskolak bultzatzen duen desberdinkeria eta gizarteak bultzatzen duen artean. **Gizarte-taldearen artean eskolatzean dauden desberdinkeriek (sarbideari, arrakastari, ibilbideei edo lorpenei buruzko neurriak) zalantzan jartzen dituzte eskolatzearen alderdi guztiak; besteak beste: ikasketa-planak eta haiek transmititzeko modua, egituren antolaketa eta orientazioa kudeatzeko modua.** Eskolak gizarte-justizia handiagoa lortzera eta errealitate horiek hobeto aitortzera jo behar du.

Genero-desberdinkeriak

Emakume, haur eta nerabe nesken eskubideekiko errespetua lotuta dago bizitza duina sustatzearekin, euren bizi-proiektua askatasunez hautatzeko aukerarekin, euren esentziari mugarik jarri gabe, eta munduan jarduteko aukerarekin. Ezinbestekoa da arau patriarkalak desmuntatzea eta genero-

betekizunak, -rolak eta -harremanak berdintasun- eta ekitate-baldintzetan finkatzea, hezkuntza bizitza duina izateko eskubide unibertsala eta funtsezkoa izan dadin eta indarkeria eta diskriminazioa gainditzen lagundu dezan.

Ezinbestekoa da arau patriarkalak desmuntatzea eta genero-betekizunak, -rolak eta -harremanak berdintasun- eta ekitate-baldintzetan finkatzea, hezkuntza bizitza duina izateko eskubide unibertsala eta funtsezkoa izan dadin eta indarkeria eta diskriminazioa gainditzen lagundu dezan.

Hala ere, genero-desberdinkeriaren aurkako borroka eskolako eta ikasgelako praktika ohikoenen araberakoa ere bada. Zehazki, honako hauek dira:

- Irakasleak **sentsibilizatzea** honako hauen gainean: itxaropen profesionalak garatzearen garrantzia, ikasleengandik espero dutenari dagokionez desberdinkeriarik ez egitea, eta prestakuntza-ikastaroen estereotipoak saihestea.
- Irakasleak **bultzatzea** berdintasunezko orientazio-portaerak gara ditzaten eta, adibidez, zailtasunak sortzen badira, neskak azkarrago bideratzea ekidin dezaten.
- Irakasleak **bultzatzea** euren ikasleen artean genero-arloko gaiei buruzko pentsamendu independentea gara dezaten, ikasleek euren hezkuntza- eta lanbide-orientazioari eta orientazio pertsonalari buruzko erabaki kontzientek har ditzaten.
- Irakasleak **sentsibilizatzea** haurren artean ikasgelan tratu-berdintasuna bermatzearen garrantziaz, ez bakarrik ikaskuntzarako sarbideari dagokionez, baita diziplinak kudeatzeko portaerei dagokienez ere; izan ere, askotan, inplizituki haurrak aurrez ezarritako roletara bideratzen dituzte.
- Genero-estereotipoak **saihestea**, oraindik ere, gehiegitan, eta batez ere hausnartu gabeko tradizioetatik, eskolan lantzen diren materialetan irauten baitute.

1.3.6 Hezkuntza deskolonizatzailea

Gaur egun oraindik ere, garai batean kolonizatutako herrialde gehienetan, hezkuntza nazionalak eskola kolonialaren kopia txarra izaten jarraitzen du, baita irakaskuntzaren edukiari dagokionez ere. Irakaskuntza pixkanaka afrikartu dutenez eta erreformak abian jarri direnez, nazionalek diseinatu dituzte zenbait maila, batez ere lehen hezkuntzan eta zenbait irakasgaitan, hala nola historian eta geografian. Hala ere, **frantsesaren eta Europako beste hizkuntza batzuen (ingelesa, gaztelania, alemana, latina) irakaskuntzak eta zientzietako irakasgaiek antzinako herrialde kolonizatzaileen ikasketa-planei jarraitzen diete, batzuetan urte batzuetako atzerapenarekin.**

Hezkuntza-proiektu emantzipatzaile batek gure gizartearen alderdi kolonialak desmuntatu edo ezagutarazi egin behar ditu. Hala, hezkuntzak bermatu behar du gizateriak historian zehar hainbat esparrutan jasotako ezagutzen irakaskuntza eta ikaskuntza; gainditu egin behar du

kontzeptuen eta ikuspuntu eurozentrikoen edo mendebaldekoen nagusitasuna, eta kontuan hartu behar ditu munduko eta herrialdeetako ezagutzen, kulturen, hizkuntzen eta ikuspegi aniztasuna. Horrek berekin dakar **gizabanako guztiak sartu behar izatea eta aukera bera eman**

behar izatea, ekarpenak egin ditzaten eta beren praktikak eta metodologiak aplika ditzaten. Adibidez, giza eskubideen defentsarako borroka aztertzean, aintzat hartu beharko litzateke Afrikan eta Latinoamerikan antzina kolonizatuta zeuden herriek munduarekiko zuten ikuspegia (ikus *Ubuntu*).

Halaber, **aitortu eta sustatu egin behar dira hezkuntza-espazioetan ezkutuan dauden kultura-aniztasuna, kulturartekotasuna eta esperientziak**, hau da, arrazionaltasun zientifiko menderatzaileak ukatzen dituen gizarte-esperientziak.

Illo horretan, **kulturarteko herri-hezkuntza sustatu beharko litzateke, feminista, autoktonoa eta nekazaria, ezagutzen ekologian oinarritua** (ezagutza kontzeptualak, espiritualak, emozionalak, harremanetakoak, afektiboak, komunitarioak eta herrikoiak, besteak beste), **antzinako munduko hizkuntzak, kulturak eta ikuspegiak berreskuratzeko, mendebaldartzetik aldentze aldera.**

1.4 HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEAREN ESPERIENTZIA BATZUK: LATINOAMERIKAREN KASUA

Latinoamerikak tradizio luzea du ideologia askatzailearen edo herri-hezkuntzaren arloan, eta leku nabarmena du hezkuntza emantzipatzaileari buruzko egungo eztabaidetan. Esperientzia guztien artean, **Hezkuntza Eskubidearen aldeko Latinoamerikako Kanpainarena (CLADE)** da, zalantzarik gabe, egokiena.

CLADEk hezkuntza emantzipatzailearekin duen konpromisoa 2012. urtekoa da, Herrien Goi Bilerako Hezkuntza Lantaldearen eztabaida eta hausnarketen esparruan, Río+20ren testuinguruan. Ordurako azpimarratu zen oso garrantzitsua zela ahalduntzeko eta gizartean parte hartzeko, aniztasunean eta desberdintasunean bizitzeko, norberaren bizitza eramateko eta planifikatzeko eta ingurumenarekin harmonian bizitzeko giza gaitasunak garatuko zituzten hezkuntza-ereduak eraikitzea. Hezkuntza egokia, erabilgarria, eraldatzailea eta kritikoa proposatu zen, **giza duintasuna eta gizarte- eta ingurumen-justizia sustatzeko helburu nagusia zuena.** 2016an, CLADEk beste urrats bat egin zuen hezkuntza emantzipatzailea bermatzeko, Mexiko Hirian egindako IX. Eskualdeen Batzarra zela eta. Bileran, **hainbat erronkari buruzko elkarrizketak egin eta iritziak trukatu ziren; hala nola, hezkuntzan diskriminatzen moduak, bereziki genero-diskriminazioa; hezkuntzaren teknokratizazioa; hezkuntza-sistemak homogeneizatzeko joera; gizarte- eta kultura-bereizketako proba estandarizatuen bidezko ebaluazioa; eta hezkuntzarako finantza-baliabideen murrizketa.** 2018an, CLADEk hezkuntza emantzipatzailearen gaiari heldu zion berriro, Bogotan (Kolonbia) egindako X. Eskualdeen Batzarrean. Bere hedapena zabaldu egin zen «**Askatasunerako hezi: elkarrizketak eta hezkuntza emantzipatzailearen aldeko ekintza**» eskualde-mobilizazioari esker, **zeinak hezkuntza askatzailea sustatzeko eta defendatzeko elkarrizketarako, hausnarketarako eta ekintzarako gonbita egiten baitzuen.**

Gaur egun oraindik ere, garai batean kolonizatutako herrialde gehienetan, hezkuntza nazionalak eskola kolonialaren kopia txarra izaten jarraitzen du.

2. ATALA

AFRIKA ETA HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEA



2.1 AFRIKAKO HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEA

2.1.1 Afrikako hezkuntza tradizionalaren oinarriak eta teknikak

Oinarriak

Mungala-ren arabera (1982), honelakoa da Afrikako hezkuntza tradizionala:

- **Kolektiboa**, gizabanakoa beti definitzen baita taldearekiko harremanean. Haurrak komunitatekoak dira, eta komunitateak hezten ditu.
- **Pragmatikoa, zehatza eta funtzionala**, bizi izandako esperientziaren pedagogian oinarritzen baita eta eguneroko bizitzarekin lotutako ezagutza praktikoak lantzen baititu.
- **Ahozkoa**, ahoz aho edo behaketa eta errepikapenaren bidez transmititzen da zuzenean; ez dago idazketarik.
- **Etengabea eta progresiboa, graduala eta arrakalarik gabea**, belaunaldi batetik bestera, familiarik klanera, klanetik gizartera, teoritik praktikara, etab.
- **Mistikoa**, beti sakratua eta erlijiosoa denak markatzen baitu.
- **Homogeneoa eta uniforme**, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren tradizioen errespetuan oinarritua.
- **Osoa eta moldakorra**, gizabanakoaren osagai guztiak hartzen baititu (fisikoa, intelektuala, soziala, morala, kulturala, filosofikoa, ideologikoa, ekonomikoa, etab.).
- **Integratzailea**, hau da, gizabanakoaren eta gizartearen arteko kohesioa eta elkarrekiko onarpena bermatzea du helburu.

Teknikak

Afrikako hezkuntza tradizionalak hainbat teknika erabiltzen ditu, umeari helduarorako baliagarriak diren ezagutzak emateaz gain, nortasuna sortzen laguntzen dutenak. Teknika horiek haurraren jardura sustatzen dute bere oinarritzko premien arabera, eta haurraren garapen mentalaren eta sozializazio-mailaren mende daude (metodo aktiboak). Erabilitako hezkuntza-teknika nagusiak ipuinak, igarkizunak, elezaharrak, atsotitzak, beldurra eta hastapen-errituak dira (Mungala, 1982).

Erabilitako hezkuntza-teknika nagusiak ipuinak, igarkizunak, elezaharrak, atsotitzak, beldurra eta hastapen-errituak dira.

1. koadroa - Afrikako hezkuntza tradizionalako teknika nagusiak

Iturria: Mungala (1982)

«**Ipuinak.** Gaez erakusten zaizkie hurrei, suaren inguruan, egunez hainbat lan egiten direlako. Horrela, ipuinek zeregin hezitzailea eta moralizatzailea betetzen dute.

Elezaharrak. Horien bidez, haurrak ezagutzak bereganatzen ditu; hala nola ipuinak transmititzen dituztenak, baina, baita genealogiari, historiari, geografiari, kosmogoniari eta abarri buruzkoak ere.

Igarkizunak. Jolasa eta, aldi berean, adimen-ariketak dira. Oroimena eta irudimena erabiltzen dituzte, eta behartu egiten dute; honako hezkuntza-printzipio hauetan oinarritzen dira: pedozentrismoa, emulazioa eta demokratizazioa.

Igarkizunek, ipuinek eta elezaharrek bezala, hainbat diziplina jorratzen dituzte: historia, geografia, anatomia, zoologia, botanika, etab.

Atsotitzak. Hurrek jaso behar dituzten balioak, portaerak eta jarrerak transmititzen dituzte. Haien edukia taldearen bizitza sozialeko arlo ugari lotuta dago: adiskidetasuna, itxura, zintzotasuna, adeitasuna, elkartasuna, elkarrekiko laguntza, ezkontza, lana, etab.

Jolasak. Haurren entrenamendu fisikorako eta erresistentziarako ariketak ez ezik, baliabide eraginkorrak dira oinarritzko ikaskuntzak sustatzeko, adimena, pertzepzioak, esperimendatzeko joera, asmatzeko ahalmena eta abar garatzeko ere. Jolasaren bidez, haurrak zenbait errealitate intelektual bereganatu egiten ditu, hurren adimenetik kanpo egon beharko zutenak. Ausazko jokoei, zenbatzeko jolasak edo eragiketa matematiko konbinatuko jolasek hurren arrazoibidea eta irudimena garatzen dituzte. Imitazio-jolasen bidez, haurrak taldeko produkzio-jarduerak egiten hasten dira. Azkenik, jolasaren arauak betetzea bere izaera eratzen duen benetako heziketa moral eta soziala da haurarentzat.

Beldurra. Bizitza sozial osoa antolatzen duten arauak, legeak eta bizitzako lehenetsiak betearazteko hezkuntza tradizionalak erabiltzen duen baliabidea da. Gizabanakoa legeak, debekuak, tabuak, eta abar haustea izan ditzakeen ondorio naturalen edo naturaz gaindikoen beldur da. Zigor fisikoak zigor arinak izaten dira, nahikoa izaten da gaitzespenak botatzea, eta, haur setatiak hezteko, beldurrera jotzen da; horretarako, pertsonaia misterioitsu eta beldurgarriak gogorarazten zaizkie: zakuaren gizona eta abar.

Hastapen-erritoak. Nerabegarotik helduarora igarotzea markatzen dute, eta helburu nagusia da ordura arte jasotako hezkuntzaren hutsuneak betetzea, nerabea gai dadin pisua eramateko, zailtasunak jasateko eta bizitza berriaren sekretuak ezagutzeko. Erritu-praktika horien proba gogorren helburua da subjektuaren erresistentzia fisikoa garatzea, beregan dauden indarkeria mota guztiei aurre egitea eta erabateko mendetasuna ezartzea, taldearen batasuna eta biziraupena zaindu eta bermatzeko. Horrela, ezkon-bizitza, hierarkiarekiko errespetua, elkartasuna, elkarrekiko laguntza, morala, diziplina indibiduala, hizkuntza kodetua eta diskrezioa (sekretu etnikoak) ezagutzen zituzten gazteek.»

2.1.2 Hezkuntza tradizionala Afrikan: hezkuntza emantzipatzailea?

Hezkuntza kolektibo eta soziala

Afrikan, kolonizazioaren aurretik, ez zegoen gizartetik bereizitako hezkuntzaerakunderik. Gizartea berez hezitzailea zen, eta heldu bakoitza hezitzaile izan zitezkeen: «Hezkuntza-eremua ez da eskola-erakundea, gizartea da, ekoizpen-lekuak (zelaiak, sutegiak, basoa, ibaia, etab.). Ikasmateriala herri afrikarraren kultura materialaren parte diren tresna tradizionalak dira» (Gouda, 1986, 300. or.).

En África, antes de la colonización, no había ninguna institución educativa separada de la sociedad. Esta última era en sí misma educativa y cada persona adulta era una educadora en potencia.

Moumouni-ren arabera (1964, 1998), Afrika beltzean eskola eta bizitza gauza bera dira. Hezkuntza-prozesuak ez ditu bereizten ikasi egiten den bizitzako aldia eta ikasitakoa praktikan jartzen den aldia; horrez gain, hezkuntza iraunkorra da, eta edukiak eta esperientzia pedagogikoak aldatu egiten dira ikaslearen adinaren arabera.

Afrikako hezkuntza tradizionala *kolektiboa* ere bada, gizabanakoa beti definitzen baita taldearekiko harremanean. Haurrak komunitatekoak dira, eta komunitateak hezten ditu.

Ikuspegi horien guztien arabera, Afrikako hezkuntza tradizionala emantzipazioiturren da. Afrika beltzean eskola eta bizitza gauza bera izateak Paulo Freireren ikuspuntua gogorarazten du; izan ere, Paulo Freireren arabera, gai pedagogikoa inoiz ez da bereizi behar gai sozialetik: «inork ez du inor hezten, inork ez du bere burua hezten, gizakiek beren artean hezten dute elkar, mundua bitartekari delarik». Afrika tradizionalan, arrakasta inbertsio kolektiboa da, «partekatu» egiten da. Gizabanako bakoitzaren jarduera besteentzako edo gizartearentzako ekarpena da, eta, beraz, gizabanakoak eta komunitateak baliagarritzat jotzen dute.

Gainera, elkartasunaren ikaskuntza prestakuntza-jardueretan edo -praktiketan hasten da, ikasle guztiak arrakastarantz bideratzeko, taldearen baliabideak baliatzen dituzten ikuspegi pedagogikoen bidez.

Afrikako hezkuntza tradizionalak helburu emantzipatzaileak ere baditu; izan ere, norbanakoak edo taldeak bere buruaz, gaitasunez, trebetasunez eta potentzialaz duen irudia aldatzen saiatzen da. Heziketa lagunartekoa da, norberarengan konfiantza areagotu nahi duena, bere potentziala aurkitu eta ustiari nahi duena, norberak jartzen dituenak baino muga gehiago ez daudela ulertarazi nahi duena, eta abar.

Esperientziaren pedagogia ahalbidetu eta eguneroko bizitzarekin lotutako ezagutza praktikoak oinarri dituzenez, Afrikako hezkuntza tradizionala pragmatikoa, zehatza eta funtzionala ere bada.

Balioetan oinarritutako hezkuntza, gizakia ardatz duena

Hezkuntza-prozesu guztiak bezala, Afrikako hezkuntza tradizionala balioen transmisioan oinarritzen da. Mungalaren arabera (1982), Afrikako hezkuntza tradizionalaren funtsezko balioen artean honako hauek daude:

- **Taldearen nagusitasuna gizabanakoarekiko.** Jabetza kolektiboaren erabilerak jabetza hori errespetatzea eta jabetza pribatua komunitatearen zerbitzura jartzea eskatzen du, ordain gisa.
- **Elkartasun arduratsua.** Hau da, elkarrekiko eskubideak eta betebeharrak, eta, bereziki, laguntza behar duten komunitateko kideek (adinekoak, gaixoak, desgaituak, alargunak, umezurtzak, etab.) laguntza jasotzeko eskubidea.
- **Adinekoekiko errespetua.** Adinekoek nolabaiteko eragina duten gazteengan, lortzen joan diren ezagutzak direla eta. Gazteek pixka bat gehiago jakitea eragiten du horrek (hortik, Hampate Bay-ren hitzak: «*Hiltzen den adinekoa sutan dagoen liburutegi bat da*»).
- **Tradizioak eta ohiturak diren legeen espirtuarekiko errespetua,** horiek ez betetzeak zigor soziala baitzekarren (gaur egungo errepresio-gailuetara jo gabe, hala nola kartzelara).
- **Espiritu komunitarioa eta lan kolektiboa** (pertsonek bere alea jartzen du komunitatean, hartaz baliatzeko eskubidea eskuratzeko).
- Balio orokorrak, hala nola moralak, ausardia, zintzotasuna, obediencia, adeitasuna, etab.

Egia da gizartea bera hezitzailea dela eta balio horien guztien transmisioa ahalbidetzen duela, baina badira esku-hartze esparru espezifikoagoak ere. Horixe da, hain zuzen ere, adin-taldeen kasua; izan ere, egitura formalak dira, gizarte-antolamenduan integratuta daude, eta belaunaldi bereko pertsonak biltzen dituzte, gizarteratzeko beharrezkoak diren balioak eta irakaskuntzak transmititzeko.

Hezkuntza-tekniken ikuspegitik, aipatu bezala, **ipuinek eta atsotitzek eginkizun garrantzitsuak dute balioen transmisioan.** Adibidez, ipuinek, ongia zigortzen eta saritzen dela erakusten dutenez, helburu moralizatzailea dute. Atsotitzek haurrek jaso behar dituzten balioak, portaerak eta jarrerak transmititzen dituzte.

Afrikako hezkuntza tradizionalan balioak transmititzeari ematen zaion garrantziaren helburua da gizarteak behar duen gizaki-mota osatzea.

Beraz, **hezkuntzaren helburua konpromisoan eragitea ere bada.** Elkarrekin bizitzeko edo gauzak egiteko trebetasunak eskuratzera bideratuta dago bereziki. Senitarteko izatea, elkartasuna, lankidetzak eta tolerantzia balioei

Hezkuntzak transmiti daitezkeen jardunbideetan oinarritu behar du, eta ez uler daitezkeen kontzeptuetan soilik.

ematen zaion garrantzia printzipio honetan oinarritzen da: hezkuntzak transmiti daitezkeen jardunbideetan oinarritu behar du, eta ez uler daitezkeen kontzeptuetan soilik.

Ubuntu kontzeptuak (Murove, 2011) modu zoragarrian jasotzen du Afrikako gizarte tradizional askok bilatzen zuten etika humanista hori. **Ubuntu gizatasuna esan nahi du.** *Ubuntu*ren etika da **gizatasunik gabekotzat jotzen zen edozein jokabideri aurre egin nahi zion** etika humanista. Gizatasun hori eskuratzeko da familiaren eta inguruko komunitatearen erantzukizun nagusia.

Desmond Tutuk dioen bezala, «**Ubuntu duen pertsona bat irekia da eta besteentzat eskuragarri dago, besteei babesa ematen die, ez da mehatxatuta sentitzen beste batzuk**

zerbaitetan gai direnean eta onak direnean, bere buruaz ziur dagoelako (badakielako osotasun handi batekoa dela), eta txikiagotu egiten da beste pertsona batzuk umiliatu edo gutxien direnean, beste batzuk torturatu edo zapaltzen direnean». Ubunturen eraginkortasuna harreman-arrazionaltasunari ematen dion nagusitasunetik dator. *Ubuntu* harremanen munduaren ikuspegian oinarritzen denez, haren ekarpen nagusia da baieztatzea, gizaki garen aldetik, besteen mende gaudela ongizate hoberena lortzeko, eta gure gizateriaren osotasuna gure elkarrekiko mendekotasunaren eta elkarren mendekotasunaren errealitatean lortzen dugula.

Hala ere, **nahiz eta Afrikako hezkuntza tradizionalak eta hezkuntza emantzipatzaileak aurrez gogoratu diren puntu komunak dituzten, gatazkak edo desadostasunak ere ikus daitezke. Izan ere, Afrikako hezkuntza tradizionalaren oinarrietako batzuk (komunitatearen nagusitasuna gizabanakoaren gainean, adinekoekiko errespetua, tradizioak eta ohiturak diren legeen espirituarekiko errespetua, etab.) ez dira beti bateragarriak izaten hezkuntza emantzipatzaileak oinarritzat dituen pentsamendu- eta ekintza-askatasunarekin edo -autonomiarekin.**

Afrikako hezkuntza tradizionalen antzeman dezakegun ahulgune nagusietako bat da lehentasun handiagoa ematen diola (gehiegi?) kolektiboari indibidualari baino, taldeari pertsonari baino. «Alienatzailetzat» jo ezin daitekeen arren, baliteke lehentasun nahikorik ez

Afrikako hezkuntza tradizionalen antzeman dezakegun ahulgune nagusietako bat da lehentasun handiagoa ematen diola (gehiegi?) kolektiboari indibidualari baino, taldeari pertsonari baino.

ematea gizakia askatzeari eta haren pentsatzeko edo askatasunez jarduteko gaitasunak indartzeari. Askotan, «hertsatzeko modu bat» da, «hertsadurari uko egitea» baino. Horrela, Afrikako hezkuntza tradizionala, batez ere balioak, arauak eta ezagutzak transmititzeaz ari garenean, askotan gizarte-jarraitutasunaren zerbitzura dagoen tresna bihurtzen da (eta, beraz, inplizituki **gizarte-erreproduktzioaren eta klase nagusiaren zerbitzura dagoen tresna**).

Hastapen-hezkuntza

Afrikako gizarte tradizional gehienetan, hezkuntza formala sistematikoki garatzen zen **nerabegarotik helduarora igarotzea markatzen zuten hastapen-zeremonien** testuinguruan. Hastapen-errituek **tutoretzatik askatzea eragiten zuen**, eta, aurrerantzean, hasitako gaztea **helduen eta emantzipatuen munduan sartzen zen**.

Praktika emantzipatzaile bat bere eraginetatik eta eragiten duenetik abiatuta defini edo identifika daitekeenez, emantzipatzailetzat har daiteke autonomia garatzen edo indartzen duen edozein hezkuntza. Zalantzarik gabe, horixe da Afrika tradizionalako hastapen-erritu eta -praktiken kasua, honako helburu hauek baitituzte: (i) Helduen presentziarik gabe **ulertu eta jarduteko** gai izatea. (ii) Norberaren jabe izatea eta norberaren kontzientziaren arabera jardutea. (iii) Norberaren eskubideak eta betebeharrak **ezagutzea**. (iv) **Kritikoa izatea** eta distantzia hartzeko gai izatea. (v) **Instrukzioak saihesteko** gai izatea. (vi) **Euren kabuz pentsatzeko** eta euren buruaz harago ikusteko **gai** izatea. (vii) **Norberarekiko konfiantza garatzea**, norbera izatearen eta norbera izatera iristearren harrotasuna. (viii) **Erantzukizunaren sena** izatea eta aurrea hartzeko gai izatea. (ix) **Norbera gainditzeko eta arriskuak hartzeko** gai izatea. (x) Norberarengandik (estereotipoak, aurrez pentsatutako ideiak, hazkunde-etapak, etab.) ez ezik, familiarengandik, kideengandik, taldetik, gizartetik eta abarretik **emantzipatzeko gai izatea**.

2.2 AFRIKAKO HEZKUNTZAREN ARLOKO PENTSALARIAK

Saharaz hegoaldeko Afrikako hezkuntzaren arloko pentsalari garaikideen artean **bi pertsona nabarmentzen dira: Burkina Fasoko Joseph Ki-Zerbo historialaria eta Tanzaniako Julius Nyerere pentsalari eta estatu-politikaria.**

2.2.1 Joseph Ki-Zerbo

Joseph Ki-Zerbo irakaslea, zalantzarik gabe, XX. mendea markatu zuen Afrika garaikideko pentsalarietako bat da, eta Afrikako hezkuntzari buruzko hausnarketan ere ekarpen handia egin du (Badini, 1999). Afrika garaikideko hezkuntzaren teorikoa eta profesionala izan da. **Ki-Zerbo irakaslearen pentsamenduaren erreferentzia-puntu epistemologikoak honako hauek dira: norberarengan konfiantza izatea, «ezagutu zeure burua» eta «norberaren kabuz eta norberarentzat pentsatzea» printzipioak oinarri hartuta; ongi ulertutako alteritatea; iraganaren erreferentzia kritikoa; eta Afrikako herri-jakiturian oinarritutako ikerketaren garrantzi ordezkazina.** Ki-Zerboren pentsamendua bi formula hauetan laburbil daiteke: «Garapena, giltzak buruan izanda» eta «garapen endogenoa» (Badini, 1999).

Ki-Zerboren ustez, **endogenoak ez du esan nahi «autarkia»**, ez du esan nahi nork bere buruari atzera egiten dionik, ezta iraganari edo «tradizionalari» erreferentzia obsesibo eta aldebakarrekoa egiten dionik ere, besteekin edozein harreman izan aurretik norbera izateko aurretiazko aldarrikapen bat baizik. Afrikako atsotitz ezagun batek, Ki-Zerbok jasoak, honela dio: «Beste baten alfonbran lo egitea lurrean lo egitea bezalakoa da».

Ki-Zerbok **hezkuntza** hitza zerabilenean, ez zuen **Mendebaldeko eskola-hezkuntza bakarrik** aipatzen, baita hainbeste intelektual eta jakintsu eman dituen **hezkuntza tradizionala ere**. Beraz, Ki-Zerbok hezkuntzaren ikuspegi benetan sistemikoa zuen: bere ustez, eskola hezkuntza-erronkaren erantzunaren zati bat baino ez zen. Uste zuen bazirela beste hezkuntza modu batzuk, baita tradizionala ere, eta ezin zirela horiek baztertu. Hezkuntza tradizional horrek, batez ere, gizakia bere gaitasunen arabera emantzipatzera bultzatu beharko luke.

Kontinente beltzaren historiari buruzko bere lan ospetsuan, **hezkuntzaren** esanahia eta garrantzia azaltzen du, **tresna operatibo (teoriko eta praktikoa) gisa ulertuta, helburu gisa baino gehiago**. Erantzuteko prozesu luzearen kate-maila erabakigarria da, eta, ziurrenik, galderarik funtsezkoena iruditzen zitzaion: «Nola birstortu?».

Bere uste osoekiko leial, Joseph Ki-Zerbok Afrikako Garapenerako Ikasketa Zentroa (CEDA) sortu zuen. 1980an, Uagadugú hirian. Kontinente mailan, Garapen Endogenorako Ikerketa Zentroa (CRDE) sortzen lagundu zuen. Dakarren zuen egoitza, eta lelotzat «ez genuen garatu, geure burua garatu genuen».

Joseph Ki-Zerbo. Garapen Endogenorako Ikerketa Zentroa (CRDE) sortzen lagundu zuen. Dakarren zuen egoitza, eta lelotzat «ez genuen garatu, geure burua garatu genuen».

2.2.2 Julius Nyerere

Julius Nyerere tanzaniarra (1922-1999) teorialari eta irakasle profesionala izan zen, batez ere helduentzako hezkuntzan.

Nyererek uste zuen helduen hezkuntzaren **garapena ezinbestekoa zela nazioaren**

garapenerako. Hiru helburu ezarri zituen: «Lehenengoa da tanzaniarrak (afrikarrak) mendeetan bizi izan duten etsipenetik ateraraztea; bigarrena, haien bizi-baldintzak nola hobetu erakustea; eta hirugarrena, berriz, politika nazionalaren oinarri diren sozialismoaren eta autosufizientziaren printzipioak ulertzen laguntzea» (Kassam, 1994). Praktikan, **Nyererek Ujamaa izeneko herrixka komunitarioak osatu zituen, eta, horietan, komunitateak bere gain hartzen zuen antolaketa sozialaren eta bere existentziaren erantzukizuna.**

Horretarako, beharrezkoa zen alde zuzenetik lidergo-egiturak sortzea. Helduak herriaren onurarako hezteko egitura iraunkorrak ziren (autoemantzipazioa).

Autoemantzipazioa egia bihurtzeko, Nyererek helduen hezkuntzaren teoria sistemiko bat garatu zuen. Hauxe da 1976an Arushan eman zuen hitzaldiaren laburpen bat: «Garapena gizakiarentzat, gizakiak gauzatutakoa eta gizakiarena da. Baita hezkuntza ere. Helburu du gizakia ezjakintasunaren eta mendekotasunaren murrizketa eta mugetatik askatzea. Hezkuntzak areagotu egin behar du gizakien askatasun fisikoa eta mentala, beren buruaren, beren bizitzaren eta bizi diren ingurunearen gaineko kontrola areagotzeko. Hezkuntzak emandako ideiek, edo heziketaren bidez burura ekarritakoek, ideia askatzaileak izan beharko lukete. Hezkuntzaren bidez eskuratutako trebetasunek trebetasun askatzaileak izan beharko lukete. Beste ezeri ezin zaio hezkuntza deitu. Eskulabotasun-pentsamoldea edo ezintasun-egoera sortzen duen hezkuntza ez da inondik inora ere hezkuntza; giza espirituaren aurkako eraso da».

Hortaz, **helduen hezkuntza pertsoneri garatzen laguntzeko erabili behar da.** Gizakien gaitasunak maila guztietara zabaltzen lagundu behar du. Bereziki, gizakiei lagundu egin behar die garapena zer den euren kabuz erabakitzen, lankidetzan. Lagundu egin behar die gizakiei argi pentsatzen; aukera eman behar die ekintza-bide alternatiboak azter ditzaten; aukera eman behar die alternatiba horien artean aukera dezaten, aintzat hartuta euren helburuak; eta euren erabakiak errealitate bihurtzeko jarrera eman behar die. «Askapena» da behin eta berriro errepikatzen den hitza.

2.3 AFRIKAN HEZKUNTZA BIRPENTSATZEA/ALDATZEA?

2.3.1 Afrikako hezkuntzaren balantzea, independentzia lortu eta 60 urtera

«**Hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta guztiontzako bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea**» da hemendik 2030era, halaber, nazioarteko komunitatea gaur egun Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) bidez mugiarazten duten konpromisoetako bat (GJH4). Hala ere, haur guztiei mundu osoan aitortzen zaien eskubide hori urrun dago Afrikan errealitate izatetik.

Ia 75 milioi haur eskolatu gabe, Saharaz hegoaldeko Afrika da munduko eskualderik kaltetuena, MGH4ren helburuak lortzeko zailtasunak direla eta. 6 eta 11 urte bitarteko haurren bosten bat baino gehiago dago eskolatu gabe, eta 12 eta 14 urte bitarteko haurren ia heren bat. 15 eta 17 urte bitarteko gazteen ia % 60 ez da eskolara joaten. Eskolara joateko aukera dutenentzat, ikaskuntzaren kalitatea ez dago beti bermatuta: eskolatutako haurren % 93k ez dituzte eskuratu irakurtzeko oinarrizko gaitasunak, ezta matematikako gaitasunak ere % 86k. Lehen hezkuntzan nesken matrikulazio-tasak igoera handia izan duen arren (1975ean % 38,3 izatetik

ikaskuntzaren kalitatea ez dago beti bermatuta: eskolatutako haurren % 93k ez dituzte eskuratu irakurtzeko oinarrizko gaitasunak, ezta matematikako gaitasunak ere % 86k.

2017an % 76,5 izatera), aurrerapen eskasak egin dira 1999az geroztik. **Kontinentean oraindik ez da parekotasunik lortu.** Desgaitasunak dituzten haurrek, premia bereziak dituztenek, gutxiengo etnikoetako haurrek, gatazkaguneetako haurrek, egoera larrian dauden familietakoek... ez dute beti aukerarik izaten eskubide hori pribilegiatuen baldintza berberetan baliatzeko. **Desgaitasunak dituzten haurren % 10 baino ez doaz eskolara, eta eskolatu gabeko haurren herenak du desgaitasunen bat.**

Eskolak pribatizatzeko joera gero eta handiagoa da, eta horrek ez du laguntzen. Hezkuntza-sistemek desberdinkeria horiek ezabatu eta haur guztiei norbera garatzeko aukera berberak eskaini beharko lizkiekete, baina maiz ez dute lortzen. Hezkuntzaren edukiak, inguruneak, eragileek eta ikaskuntza-ikuspegiak, batzuetan, areagotu egiten dituzte desberdinkeria horiek, arindu beharrean.

2.3.2 Zergatik eta nola aldatu hezkuntza Afrikan?

Emaiza neurritsuak, nazioko eta nazioarteko mobilizazioa gorabehera

2020an egin zen **Guztionezko Hezkuntzari** buruzko Dakarreko Munduko Foroak mobilizazio handia eragin du nazioartean atzeratuen dauden herrialdeen hezkuntzaren alde, eta herrialde horietako gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikan daude. Kalitate oneko eskolatze unibertsalaren helburuak, garapenaren eragile guztiek babestuta, hainbat erreforma, programa eta proiektu sortu ditu. Nazioartean, hezkuntzak leku nabarmena hartu du, lehenik **Milurteko Garapen Helburuetan (MGH) eta gero Garapen Jasangarriko Helburuetan (GJH).** Hala ere, ekimen horiek guztiek emaitza gutxi izan dute Afrikan.

Aldaketari barrutik ekitea

Orain arte, hezkuntzak, Afrikan bereziki, inoiz ez du nazioarteko komunitateko eragileen hainbeste kapital intelektual eta finantzario mugiarazi. Afrikan aplikatutako kontinente, eskualde eta nazio mailako ia estrategia guztiak nazioarteko agendekin daude lerrokatuta.

Adibidez, kontinenteak garapen iraunkorra izan dezan aldaketarako eragile eraginkorra izango den afrikar herritar berri bat «sortzeko» helburuarekin, Afrikako Batasunak 2063 Agendan aurreikusten duen bezala, Afrikako Batasuneko Batzordeak Hezkuntzarako Estrategia Kontinental bat prestatu du 2016-2025 hamarkadarako (CESA 16-25).

Hala ere, mobilizazio indartsua egon zen arren eta nazioartean, kontinentean eta herrialdean bertan ekimenak abiarazi eta **ahalegina egin zen arren, kontinenteko hezkuntza-sistemak oraindik ere oso urrun daude** Nelson Mandelak aipatzen zuen «mundua aldatzeko erabili daitekeen armarik arriskutsuen» horretatik.

Hezkuntza-arloan inbertsio esanguratsuak egin badira ere, kontinentean zein hezkuntza-sisteman berdintasun gabezia handia dago oraindik. Hala eta guztiz ere, Afrikako hezkuntza-sistemen analisi sistemiko bat edo ikuspegi global bat aplikatuko balitz, beharbada, ageriko kontua azaleratuko litzateke: Afrikako eskolen eraldaketa sakon eta jasangarria soilik kontinentean bertan egin daiteke. Lehenik eta behin, eskola eraldatzeko beharrian hori ulertu, desiratu eta aurkeztu beharko litzateke, baina kontinentean bertan.

Zoritxarrez, hezkuntza-estrategia kontinentalak (CESA 16-25) edo nazionalak ez dira

Afrikako eskolen eraldaketa sakon eta jasangarria soilik kontinentean bertan egin daiteke

guztiz kontinentean hasitako aldaketa-borondatearen ondorioz izan. Horren arrazoa da, zalantzarik gabe, 1990eko hamarkadaren amaiera aldera martxan jarritako garapenerako laguntzaren arrazionalizazio-prozesuak (Pariseko Adierazpena, laguntzen eraginkortasunari buruzko foroak, etab.), orain, garapen-sektoreez arduratzen direla, hezkuntzaren sektorea barne.

Horren ondorio nagusietako bat da **arau eta prozedura estandarizatuak eta kuantifikagarriak ezartzea eta orokortzea, hori egin ohi baita testuinguru liberaleko hartu-eman menderatzaileetan** (*new public management*). Paradigma neoliberalak eragin handia du Afrikan hezkuntza-erreformak txertatzen dituzten nazioarteko garapen-politiketan. Horiek beren ezaugarri operatibo nagusiak hartzen ari dira berriz, batez ere, helburukako errendimenduaren kudeaketa, baliabide publiko eskasen banaketa hobetze aldera (Charton, 2018). «**Efizientziak**» eta «**errendimenduaren hobekuntzak**» zehazten dute hezkuntzaren kalitatea, zeina adierazle estatistiko batzuen bitartez neur baitaiteke. Alabaina, kalitatearen neurketa eta neurketa horien kalitatea arazotsuak dira, kalitatea hautemateko modua eta bere definizioa, batez ere, eskuragarri dauden neurketa-tresnen arabera izaten direlako. Hori dela eta, **gure buruari galdetu behar diogu ea neurtzeko instrumentu horiek eta beren erabilerak zentzurik ba ote duten Afrikan.**

Alderaketa interesgarria egingenezake **Asiarekin**, bertako **hezkuntza-sistemak herrialdearen barruko baliabide eta estrategien bidez sortu baitira**. Asiako hezkuntza-sistemek ez dute nazioarteko laguntzaren beharrik izan, eta, hala ere, errendimendu akademikoko nazioarteko sailkapenen posturik onenak dituzte (ikus PISA txostena).

Erreforma politikoak ere behar dira, ez soilik teknikoak

Helburua da kalitatezko eskolatze unibertsala lortzea (EPT, ODM2, ODM4), garapen-eragile guztien babesa jasota. Horrek **hezkuntza-sistemen arrazionalizatzeko-aldaketa dakar, bi printzipiotan oinarritutakoa** (Charton, 2018). Lehenengoak erreferentzia egiten die, aipatu bezala, **hezkuntza-sistemak kudeatu eta zuzentzeko tresna berriei**, garapenerako laguntzaren arrazionalizazio-prozesuen eta *new public management* sistemak inspiratutako **arau eta prozedura estandarizatu eta kuantifikagarriak ezarri** ostean. Halaber, arlo horretan engaiatutako eragileen kopuruak gora egin ahala, nahikoa aldatu dira erabakiak hartzeko metodoak. Horiek ez dira arbitraje politikoaren hain mendekoak (giza eskariaren eta baliabide-banaketa arteko oreka); izan ere, *Guztiontzako Hezkuntzako* programak aplikatzeak dakartzan arazoak ebazteko biderik onenari buruzko eztabaidan inplikaturako eragileen arteko adostasun bat bilatzearen eta sistematikoki aplikatzearen mendekoagoak dira, kalitateari, irisgarritasunari eta finantzaketari dagokienez. Hezkuntzaren arloko teknifikazioak markaturako joera bikoitz horrek (instrumentuei eta harreman-motei dagokienez) despolitizatzen laguntzen du (Charton, 2018).

Indarrean dagoen paradigma berrian, garapenerako «arazoak» (haien artean, hezkuntza) erantzun teknikoak behar dituzten gai tekniko moduan jorratzen dira. **Hori dela eta, erreformaren dinamika isilpean lekualdatzen da politikak egiteko eremutik ezagutza teknikoen eremura, eta, ondorioz, Afrikan eskola-paradigma berria sortzen da, garapenerako laguntzak sortutako ingeniarietatik banandu ezin dena.**

Hezkuntza-sistemen helburu nagusietako batek jarraitzen badu izaten errendimendua etengabe hobetzearen bidez kalitatea lortzea, errendimendu horren irizpideak kanpotik ezarriko dira, eta adierazle kuantifikatu, neurgarri eta konparagarrien bitartez islatuko dira.

Adibide bat jartzearren, eskola afrikarra izugarri koloniala da oraindik

Ondorioz, hezkuntzaren kalitatea ez da, hasiera batean behintzat, ikasketa- edo hezkuntza-helburuen kopuru zehatz baten arabera definituko, ezta giza eskaeraren arabera ere, baizik eta «amaitutako produktua» neurtzea eta konparatzea eta produkzio-prozesua kontrolatzea ahalbidetzen duten adierazleen arabera. Logika horri jarraitu diote Afrikan hogeitaz baina gehiagoz garatutako hezkuntza-politikek. Zenbakien logikaren mende dauden argumentu arrazional eta tekniko horiek ez dituzte aintzat hartzen hezkuntza-sistemen parte diren dimentsio sozialak, psikologikoak eta politikoak, eta ibilbide luzeko praktikan oinarrituta daude. Adibide bat jartzearen, eskola afrikarra izugarri koloniala da oraindik (ikasketa-planei, komunikazio-hizkuntzei, helburuei, eta abarrei dagokienez), eta «kalitate-irizpide» deritzenek ezin dute hori islatu. Orokorrean, **Afrikako hezkuntzaren kalitate-neurketa gehienetan, txoko txiki bat besterik ez dute ahalduzkoak, emantzipazioak, garapen pertsonalak, giza eskaerari moldatzeak, egiak, duintasunak, justiziak, ekitateak, bizikidetzak edo bakeak.**



3. ATALA

HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEAREN ESPERIENTZIAK AFRIKAN (KASUEN AZTERKETA)



3.1 DAARAY SEMBÈNE (SENEGAL): HERRI-HEZKUNTZA ETA IRUDIAREN PEDAGOGIA

3.1.1 Aurkezpen orokorra

3.1.1.1 Proiektua (deskribapena)

Daaray Sembène («**Sembèneren eskolak**») 2008an sortu zuen Hadja Maimouna Niang-ek, Sembène Ousmane-ren dizipulu eta «adopziozko alabak». **Daaray Sembèneren eginkizuna «hezkuntzaren kontzeptua irudien bidez» sortu eta garatzea da.** Irudi estatikoak (argazkiak, marrazkiak, komikiak) erabiltzen ditu, baita animaziodun irudiak (telebista, zinema, marrazki bizidunak) eta Internet ere ikasketa-bitarteko gisa, metodo klasikoari eutsita.

Eskolara joateko nahia duten 7 eta 77 urte bitarteko senegaldar guztiei zuzentzen zaie *Daaray Sembène*. Bere jomuga, batez ere, analfabetoak edo eskolara sekula joan ez diren zein goizegi utzi zuten pertsonak dira. *Daaray Sembèneren* asmoa da, irakurtzen eta idazten ikasteaz haraindi, pertsonak konfiantza berreskuratzea eta haiei bigarren aukera bat ematea autonomoak izan daitezen. Azken finean, helburua da pertsona horiek emantzipatzea. Hadja Maimouna Niangen arabera, emantzipatutako pertsona bat autonomoa da. Hadja Maimouna Niangen hitzetan, «*emantzipazioa jarduteko boterea da, bai norberarentzat, bai besteentzat, eta bai besteekin, bai besteak gabe*». Hori dela eta, emantzipazioa «*besteek beren kabuz egin zezaketela uste zutena egiteko gaitasuna da*».

Daaray Sembèneren garrantzia ulertzeko, testuinguru nazionala ezagutu beharra dago. Senegalgo analfabetismotasa % 54,6koa da, emakumeen % 62,3 eta gizonezkoen % 49,3 (hiriguneetan, analfabetismo-tasa % 49,5ekoa da, emakumeen % 34,4, eta, landa-eremuetan, % 74,1ekoa, emakumeen % 57,7). UNESCOren arabera, Senegal da helduen erdia baino gehiago (% 58) analfabetoa den Afrikako hamar herrialdeetako bat.

3.1.1.2 Historikoa / Jatorria

Daaray Sembène: Hadja Maimouna Niangen eta Ousmane Sembèneren arteko antzinako istorioaren ondorioa

Oso gaztetatik, eskolan, Hadja Maimouna Niangek Sembène Ousmaneren literatura-lanak ezagutu zituen, Fatick eskualdean bisitatu ohi zuen kultura-zentroari esker. Denbora luzez irakurri zituen Sembèneren eleberriak, zinemagilea zela jakin gabe. Egun batean, telebistan *Le mandat* (mandatua) filma ikusi zuen, eta, amaierako kredituetan, Sembène Ousmaneren izena ikusi zuen. Filmaren ostean, Sembène Ousmanerekin egindako elkarrizketa bat ere eman zuten, eta horrela ezagutu zuen Ousmane zinemagilea.

1992an, zinemagintzari buruzko aldizkari bat ere aurkitu zuen, zeinetan Sembèneren helbidea aipatzen baitzen (haren Pariseko ekoiztetxearen bidez). Ez zuen zalantzarik egin; gutun bat bidali zion, ezagutzeko irrikan zegoela adierazteko. Hamabost egun geroago, Sembènek jator erantzun zion Senegalen zegoela.

Denbora luzez, Sembènek ez zien erantzun berarekin biltzeko Hadja Maimouna Niangen eskaerei. Hala ere, haren gutunei aldiro-aldiro erantzuten zien, batzuetan oso azkar ere bai, eta baldintza bat jarri zion harekin biltzeko: aurretik, batxilergoa eskura zezala! Hadja Maimouna Niangek pazientziaz hartu zuen. Batxilergoa gainditu eta hogeita lau ordu geroago, Sembèneri deitu zion horren berri emateko, eta, hortik aurrera, gertaerak kateatu ziren. Sembènek egun batzuk geroago hartu zuen Dakarren, eta, momentu horretatik aurrera, zinemagilearen ekoiztetxearen ohiko bisitari bihurtu zen.

Daaray Sembène, lehen urratsak

Oraindik doktoretzako ikasle zenean konturatu zen Hadja Maimouna Niang gazteek gero eta gutxiago irakurtzen zutela. Bere buruari galdetzen zion zer egin zezakeen gazteak irakurketara erakartzeko, nola uztartu gazteen gustuak eta irakurketa, eta *Alizia lurralde miresgarrian* liburuaren pasarte bat etorri zitzaion gogora, zeinetan protagonistak bere buruari galdetzen baitzion: «Zertarako balio du irudirik gabeko liburu batek?».

Galderaz galdera, azkenean, buruari eragin zion analfabetoei irakurtzen nola irakatsi asmatzeko. Gogora etorri zitzaion Sembènek bere film batean irakasle-rola antzezten zueneko irudi bat, hain zuzen ere, *La noire de...* obran (1962an filmatua). Sembènek antzeztutako irakasleak kartel batek «herri-eskolatzat» deskribatutako denda edo biltegi moduko lokal xume batean irakasten zuen. Eszena horretan, «eskola» inguruan seriotasunez irakurtzen duten helduak ikusten dira. **Irudi horri esker lotu zituen herri-eskola eta zinemagintza.** Orduan, bere ikasleei eskatu zien Saint Louiseko analfabetoen tasari buruzko galdetegi bat egin zezatela, zehatzago esanda, langile-klaseko Tableau, Walo eta Pikine auzoetan. Emaitzak harrigarriak izan ziren: **10 eta 13 urte bitarteko ikasle batzuk Lehen Mailako Hezkuntzan zeuden, eta ez zekiten irakurtzen.** Heldu askok ere ez zekiten irakurtzen, eta adierazten zuten, ikasteko aukera berria izango balute, eskolara itzuliko lirakeela. Hori egingo zuketan bizitzan oso mugatuta zeudelako, batik bat, irakurtzen eta idazten ez jakiteagatik. Modu horretan, Hadja Maimouna Niang ohartu zen berak eta eskolatze normala izan zutenek kontu hutsaltzat zituzten gauza asko pertsona askorentzat eragozpenak zirela, batez ere eskolara joateko aukerarik izan ez zutenentzat edo eskolan denbora luzerik pasatu ez zutenentzat. Apurka-apurka, *Daaray Sembène* ideia bururatu zitzaion, eta, zehazki, **irudiaren pedagogiarekin esperimentatzeko ideia, analfabetoei irakurtzen irakasteko.**

3.1.1.3 Ikuspegi metodologikoa

«Ikastea izateari heltzea da»

Hezkuntza emantzipatzailearen kontzeptua bat dator *Daaray Sembèneren* ideiarekin eta «aterik eta leihorik gabeko» eskolaren irudikapenarekin zein bere ikurritzarekin: «ikastea izateari heltzea da», hots, pertsonak ez dira ezagutzarekin jaiotzen, baina haren bila doazela hezten dira. *Daaray Sembèneren* obra printzipio honetan oinarritzen da: ezjakintasuna sendatu egiten da, eta sekula ez da saihestezina, baldin eta horren kontzientzia badugu eta irtenbide bat bilatzen saiatzen bagara.

La obra de Daaray Sembène se basa en el principio de que la ignorancia se cura y que nunca es inevitable, siempre que seamos conscientes de ella y tratemos de remediarla.

Irudiaren pedagogia

Hadja Maimouna Niangek irudiaren pedagogia ikasi zuen (irudiaren didaktikaren graduondokoa), Paris 3 Sorbonne Nouvelle unibertsitatean. Prestakuntza horri esker, ikuspegi ezberdina eskuratu zuen, irudiei zein pedagogiari dagokienez. Hadja Maimouna Niangek interes handia erakutsi zuen irudiaren pedagogiaren prestakuntza egiteko, hein batean, maisuaren irakasgaia ikasi zuelako; eta maisuak gogoko zuen esatea «**zinemagintza gaueko eskola**» dela, bereziki testuinguru afrikarrean. Hadja Maimouna Niangen arabera, Afrikan, irudiaren pedagogiaren aitzindaria Sembène Ousmane da, zeinak oso azkar ulertu baitzuen zinema oso didaktikoa dela eta irudiak rol pedagogiko garrantzitsua izan dezakeela. **Sembènek behin eta berriz errepikatzen zion «irudirik gabe Afrika hil egingo da»** eta Hadja Maimouna Niangek, azkenean, ulertu egin zuen.

Konfiantzan eta onginahian oinarritutako pedagogia («yes you can»)

Hadja Maimouna Niangen arabera, **hezkuntza emantzipatzailea da «askatzen duen hezkuntza, norberarentzat eta besteentzat jardutea ahalbidetzen duena, bai besteekin, bai besteak gabe»**. *Daaray Sembène* coachingeskola ere bada, eta horren helburua da ikasleek «yes you can» (bai, ahal duzu) ikurritza uler dezatela.

Daaray Sembènen, ikasle guztiak dira estudiantek. Tradizioz, eta, batez ere oraindik Senegalen, «estudiante» deritze ohiko unibertsitateetako ikasleei. *Daaray Sembènen*, aldiz, ikasleak helduak izan ohi dira eta «estudiante» esaten zaie, beren lana balioesteko, bultzatzeko eta beren konplexuak elika ez ditzaten.

Onginahian ere badu oinarria zentro honen ikuspuntu pedagogikoak. **Xede horrekin, ikasleei eskolara ez joateagatik, denbora laburrez joateagatik edo ez gainditzeagatik, gizarteak kendu dien duintasunaren parte itzultzea da.** *Daaray Sembènen*, ikasleen integritate fisiko, psikologiko eta moralaren kontrako edozein motatako mehatxu edo erasoak gaitzesten dira. Umiliazioak sustatu beharrean, buru-estimua sustatu behar da!

3.1.1.4 Inklusibitatea

École de la 2^e chance (2. aukera ematen duen eskola)

Hadja Maimouna Niangen ustez, **ezkutuko gatazka bat sortzen ari da analfabetoen eta alfabetatuen arteko, ikasketak dituztenen eta ez dituztenen artean, alegia. Hala eta guztiz ere, uste du gatazka horrek ez duela ez hankarik ez bururik eta ez duela aurrera egingo, inoiz ez delako berandu ikasteko.** Ez du ulertzen sistemak oraindik nolatan ez duen ezer aurreikusi heldugabe diren adinean eskola uzten dutenentzat, horrek haientzat eta gizartearentzat dakarren «kalteaz» edo «galeraz» jabetu gabe. Orduan, bere buruari galdetzen dio ea zergatik ezin izango den pertsona hori eskolara itzuli aurrerago.

Ez du ulertzen sistemak oraindik nolatan ez duen ezer aurreikusi heldugabe diren adinean eskola uzten dutenentzat, horrek haientzat eta gizartearentzat dakarren «kalteaz» edo «galeraz» jabetu gabe.

Desgaitasuna duten pertsonak

Daaray Sembènek zazpi gor-mutu prestatu ditu berriki (2018an), bi hilabetez, irudi bisual eta mentalen pedagogiaren bidez, eta hiru ikastun frantsesen laguntzaz, zeinak Paris 3 Sorbonne

unibertsitatean irudiaren didaktika masterrean matrikulatu baitira.

3.1.1.5 Finantzaketa eta eredu ekonomikoa

Daaray Sembène enpresa indibiduala da, eta, hori dela eta, ez du inolako dirulaguntza publikorik jasotzen. Enpresa-eredu hori asko pentsatutako hautaketa baten ondorioa izan da; izan ere, enpresa **askea izan eta izaten jarraitu nahi du**. Hadja Maimouna Niangen arabera, abenturaren hastapenetan diru publikoa onartu izan balu, trukean zerbait eman behar izango zukeen eta ez zatekeen erabat independentea izango. **Enpresa indibiduala denez, enpresa askea da, eta, bera, aldi berean, emantzipatu egiten du.**

Momentuz, *Daaray Sembèneren* finantzaketa-iturriak **mezenasek eskainitako baliabideak eta ikasleen ekarpenak** dira. Hilabete bakoitzaren amaieran, ikasleek **ekarpen sinboliko** bat egiten dute, «*aalarba*» izenekoa. Eskola koraniko tradizioarekin, «*aalarba*» da ikasleak maisu koranikoari ematen dion zenbatekoa, egindako esfortzua ordaintzeko. Hadja Maimouna Niangek ez zuen sekula doako bekarik eman nahi izan. Bere aburuz, Sembèneren ideologiaren kontra egingo luke horrek, hura dirulaguntzen printzipioaren aurka baitzegoen (bereziki nazioarteko laguntzen kontra). Honako hau esan ohi zuen: «*Nagiei laguntza ematen diegu, eta ausartak babestu egiten ditugu*». Hadja Maimouna Niangek ulertu du ikasi beharrekoa, eta, hori dela eta, konbentziturik dago *Daaray Sembènek* ez duela doako bekarik eman behar. Haren arabera, garrantzitsua da pertsonak ekarpen ekonomikoa egitea, txikia izan arren. **Doakoa edo ia doakoa denean**, ez du funtzionatzen; hori da *Daaray Sembèneren* esperientzia.

Hadja Maimouna Niangek ez zuen sekula doako bekarik eman nahi izan. Bere aburuz, Sembèneren ideologiaren kontra egingo luke horrek, hura dirulaguntzen printzipioaren aurka baitzegoen (bereziki nazioarteko laguntzen kontra). Honako hau esan ohi zuen: «Nagiei laguntza ematen diegu, eta ausartak babestu egiten ditugu».

Hori dela eta, izena emateko kuota 5.000 CFA frankora igo du.

3.1.2 Ebaluazioa

Lortutako emaitza nagusiak

Abian jarri zenetik, *Daaray Sembènek* **irakurtzen eta idazten ez zekiten 500 pertsona ingururi eman die prestakuntza**. Pertsona horiek era askotako estatus anitzak dituzte: gidariak, saltzaileak, lantegiko langileak, enpresaburuak, ez-aktiboak, administrazioko eragileak, tokiko kargu hautetsiak, eta abar. Pertsona horiek guztiek, jasotako prestakuntzari esker, **hobekuntza esanguratsuak izan dituzte beren bizitza pertsonalean eta/edo jarduera profesionalean**.

Efizientzia eta errentagarritasuna

Daaray Sembènek lortutako emaitzak **nabariak** dira, batez ere, aintzat hartzen baditugu erabilitako baliabide urriak. Testuinguru horretan, errekurtsio falta benetakoa bada ere, maiz hori erabiltzen da, oker, lortutako emaitza eskasak justifikatzeko. ***Daaray Sembèneren* esperientziak, berriz, frogatzen du bitarteko urriekin ere lor daitezkeela eragin handiko emaitzak**. Ikuspuntu ekonomiko soiletik, *Daaray Sembène* oso errentagarria da.

Lortutako emaitzak irakurtzen eta idazten jakitearen berehalako helburuez harago doaz. Izan ere, ikasleek bizitzarako eta autoestimurako gaitasunak eta trebetasunak hobetzen

dituzte, eta horrek gizartean hobeto integratzeko aukera ematen die. *Daaray Sembènen* matrikulatzen diren pertsonentzat, adostutako inbertsioa ere oso errentagarria da: lortutako onurek sobera gainditzen dute jasotako prestakuntzaren kostu globala.

Iraunkortasuna

Daaray Sembène **duela 12 urtetik** existitzen da. Testuinguru horretan, zaila da herri-ekimenek epe ertain eta luzera bizirautea, eta horregatik baloratu behar dugu positiboki proiektu honen iraupena. Iraunkortasun hori hiru faktoreren ondorioa da:

Daaray Sembène ez indabanandubere ekintzaile Hadja Maimouna Niangen ibilbide pertsonaletik, haren adopziozko aitari dion leialtasunetik edo bere konpromisoaren sendotasunetik. Hortaz, *Daaray Sembène* ek ohore egiten dio bere izenari («Sembèneren eskolak»):

Helburua da, lehenik eta behin, idazle eta zinemagilearen konpromiso sozial eta politikoa hedatzea, haren bizitzan eta obran inspiratuta, eta herriko jendearen beharrezko erantzutea. Bigarrenik, gizarte- eta hezkuntza-arloetako testuinguruak direla eta (analfabetismo tasa altua, eskola-porrot handia, etab.), **guztientzat irisgarria den prestakuntzaren eskaria altua da**, baina horretarako berezitutako egiturak oso urriak edo eskurazinak dira. Hirugarrenik, *Daaray Sembèneren* eredu ekonomikoak lagundu egiten dio proiektuaren arrakastari eta iraunkortasunari. Zentroak bere asmoak betetzeko beharrezko bitartekoak eskuratu ditu; izan ere, barruko puntu indartsuetan oinarritzen da (bereziki, finantzarioak), lankidetzapolitika gaitzetsi eta autonomia finantzarioaren alde egiten du, parte hartzeko moduko ereduaren aldeko apustua egiten du (doakotasunaren edo dirulaguntza publikoen ordez).

Erreproduzitzeko eta errepikatze gaitasuna

Senegalen, *Daaray Sembèneren* moduko milaka herri-eskola egon ahalko liriateke. Proiektu horren esperientziak bultzatu egin beharko luke Estatu bere alfabetatze estrategia zalantzan jartzera. Ekimen guztiak batuko dituen herri-eskolen antolatutako sare batekin, taldeinteligentzia mobilizatu ahalko litzateke. Zaila da zentralizatutako sistemen bidez analfabetismoaren moduko masafenomenoak gainditzea.

Proiektu horren esperientziak bultzatu egin beharko luke Estatu bere alfabetatze estrategia zalantzan jartzera.

Hori dela eta, **Estatuak, sistema administratu edo zuzendu beharrean, lehenasuna eman beharko lioke «gauzak gertatzea sustatzeari» eta/edo kontraktualizazioari.**

Aurreikusitako jarraipena (perspektibak)

Hadja Maimouna Niangen epe ertain edo luzerako desira da **hazten jarraitzea, enplegatuak izan arte; hots, eremua handitzea, milaka ikasle izatea eta, jakina, ikasi nahi duten baina bitartekorik edo zorte onik izan ez duten guztiei irakastea.** Espero du *Daaray Sembène* ek laster izatea **nazioko hizkuntzetan alfabetatzeko** aukera, batik bat wolof hizkuntzan, hori baita Senegalen gehien hitz egiten den hizkuntza nazionala.

Horrez gain, Hadja Maimouna Niangek *Daaray Sembèneren* estatusaren aldaketa bat ere aurreikusten du; zehatzago esateko, **elkarre bihurtzeko asmoa du.** Bere ustez, garrantzitsua zen estatus batekin (enpresa indibiduala) hastea, proiektuaren independentzia bermatzeko eta bere burua frogatzeko, inoren mende egon gabe (bereziki, Estatuaren mende egon gabe).

Bestalde, Hadja Maimouna Niangek ilusio handia du 2023rako *Daaray Sembène, Université Populaire Numérique Sembène Ousmane (UPNSO)* sortzeko. Unibertsitate horrek, **irakurtzen eta**

idazten irakasteaz harago joan eta, prestakuntza-mota gehiago eskainiko ditu; esaterako, osasun- eta elikadura-arlokoak, gizalege- eta hiritartasun-arlokoak eta mikroenpresen eta kudeaketaren arlokoak. Edonork eskuratu ahalko ditu prestakuntza horiek, izan irakaskuntza orokorreko ikasle, sektore informaleko eragile, sektore modernoko enplegatu, funtzionario, analfabeto, eta abar.

Ikasitakoak

Daaray Sembèneren esperientziatik, hainbat irakasgai atera daitezke.

Lehen irakasgaia da hezkuntzaren edo gizartea eraldatzeko edozein proiekturen dimentsio ideologikoa gogoratzea. Jendea hezteko, edo horien baldintzak modu positiboan aldatu edo eraldatzeko, ideologikoki ondo armatuta egon beharra dago. *Daaray Sembène* ez da eskola soila, ez dira lau horma soilik.

Batez ere, irakaskuntzako edo hezkuntzako eredu endogeno bat eraikitzeke saiakera da, zeina gure pentsalariengan (Sembène, kasu honetan), gure hezkuntza-sistema tradizioaletan (ikusitakoan, aalarbaren eta abarren sinbolismoari egindako erreferentzia) eta gure ohituretan inspiratzen baita, «iraganerako desbideratzea» deritzon iruzurrean ez erortzeko (Ki-Zerbo); horregatik erabiltzen du irudiaren pedagogia eskola honek. *Daaray Sembène* ez da konformatzen irakurtzen eta idazten irakastearekin, ezta «zientziaren pilulak irentsaraztearekin» ere (Paul Valéry). Askoz gehiago lortu nahi du, pertsonen konfiantza berreskuratu dezaten saiatzen baita, bigarren aukera bat eduki eta autonomoak izan daitezkeen. Proiektuaren xedeak harago doaz, «Afrika birjaioarazi» nahi baitute (Sembène). *Daaray Sembène* ez ditu ezberdintzen alderdi teknikoa (irakurketa, idazketa) eta hezkuntzaren dimentsio eraldatzaile edo emantzipatzailea, eta horixe da, hain zuzen ere, bere ikurrizaren zentzua; «Ikastea izateari heltzea da».

Hezkuntzaren edo gizartea eraldatzeko edozein proiekturen dimentsio ideologikoa gogoratzea. Jendea hezteko, edo horien baldintzak modu positiboan aldatu edo eraldatzeko, ideologikoki ondo armatuta egon beharra dago.

Daaray Sembène ez da konformatzen irakurtzen eta idazten irakastearekin, ezta «zientziaren pilulak irentsaraztearekin» ere (Paul Valéry). Askoz gehiago lortu nahi du, pertsonen konfiantza berreskuratu dezaten saiatzen baita, bigarren aukera bat eduki eta autonomoak izan daitezkeen. Proiektuaren xedeak harago doaz, «Afrika birjaioarazi» nahi baitute (Sembène). *Daaray Sembène* ez ditu ezberdintzen alderdi teknikoa (irakurketa, idazketa) eta hezkuntzaren dimentsio eraldatzaile edo emantzipatzailea, eta horixe da, hain zuzen ere, bere ikurrizaren zentzua; «Ikastea izateari heltzea da».

Daaray Sembèneren esperientziatik eratorritako **beste irakasgai garrantzitsu bat da helduen hezkuntzak eta herri-hezkuntzak eraginkorren direla ikasleak baloratzeko estrategiak sartu edo aintzat hartzen direnean.**

Herri-hezkuntzaren baldintza materialen ikuspuntutik, *Daaray Sembène* gainontzeko eskolek adina irakasgai ditu, eta frogatzen du ia edozein baldintzatan ikas daitekeela irakurtzen eta idazten.

«Eskola ona», batik bat, pertsona kontzienteez, motibazioz beteez, konprometituez eta abarrez elikatzen da.

Daaray Sembène ere gogorarazten du irudiek duten ahalmen handia, batez ere, irakasteko erabiltzen direnean. «Zinema gaueko eskola da», esaten zuen Sembènek, eta, Afrikako herrialdeen kasuan, arrazoi handiagoa du, bertan soilik elite txiki batek lortu ohi duelako idazten ikastea.

Daaray Sembèneren esperientziatik atera daitekeen **azken irakasgaia** da aurretik aurkeztutako beste guztiak laburtzen dituen; hots, **herri-hezkuntzarik gabe, ziurrenik, ez da garapenik izango Afrikan.** Hezkuntza ez da soilik instrukzioak ematea, eta ez da eskolara mugatzen;

adin-tarte guztiei eragiten die. **Hezkuntza emantzipatzaile**rik gabe, «*garapena, giltzak buruan izanda*» (Ki-Zerbo) printzipioak desira eder bat izaten jarraituko du denbora luzez.

3.2 AKAZI KANOZE ACCESS: ESKOLATU GABEKO GAZTEEN PRESTAKUNTZA (RUANDA)

3.2.1 Aurkezpen orokorra

3.2.1.1 Proiektua (deskribapena)

Akazi Kanoze Access (AKA) Ruandako karitatezko elkarte sozial bat da, irabaziasmorik gabekoa, gobernuz kanpoko eta apolitikoa. *Huguka Dukore Akazi Kanoze, Akazi Kanoze Accesek* 2016-2021 bitartean ezarritako programa bereizgarria da, eta gazte ruandarrei doan eskaintzen dizkie honako hauek: (i) lanerako eta enplegarritasunerako prestakuntza, (ii) lanean oinarritutako praktiketarako eta ikaskuntzarako aukerak, (iii) enpleguarekin eta autoenpleguarekin kontaktuak, (iv) enpresa-prestakuntza eta -tutoretzak, eta (v) sarbidea finantzaketara, familia-plangintzara eta ugaltze-osasunerako zerbitzuetara. **Proiektuak genero-berdintasuna sustatzen du, baita desgaitasunak dituzten gazteen giza inklusioa eta osasun-programa integralak ere.**

Huguka Dukore Akazi Kanozeren ekimen nagusietako bat da **enplegarritasunerako prestakuntza**, «*Work Ready Now*» (lanerako prest) eta «*Entreprenariat*» (enpresa-ekimena) osagaien bidez, eta honako hauek dira prestakuntza horren irakasgai nagusiak: garapen pertsonala, pertsonen arteko komunikazioa, laneko jarrera eta portaera, lidergoa, laneko segurtasuna eta osasuna, enplegatuen eta enplegatzaileen eskubide eta betebeharrak, finantza-ezagutzak, eta enpresa-espirtua.

Akazi Kanoze Accesek Ruandako 30 distrituetatik 21etan jarduten du. Lehenengo fasean (proiektuaren lehen urtea), 8 distrituetan jardun zuen, eta, bigarren fasean (bigarren urtetik aurrera), beste 13 distritu sartu dira ekimenean.

Programaren onuradun diren gazteak ez daude eskolatuta, landa-eremuetan, hirietan eta hirietako periferietan bizi dira; 16 eta 30 urte bitartekoak dira; eta egunean 1,75 USD baino gutxiago irabazten dute. Gazte horiek oinarrizko hezkuntzako 6 eta 9 urte artean izan ohi dituzte.

Ruandan, 14 eta 35 urte bitartekoa da biztanleriaren ia % 40. Urtero, 200.000 ikasle baino gehiago sartzen dira Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora, eta 90.000 baino gehiago, berriz, hezkuntza eta prestakuntza tekniko eta profesionaleko eskoletara (EFTP). Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko matrikulaziotasa % 42,5ekoa besterik ez da, eta bigarren zikloan are txikiagoa da: % 31,2. Enplegu formalaren sektore urriak ez du ahalmenik lizentziadun horiek guztiak hartzeko, eta, ondorioz, gazteen artean langabezia % 65ekoa da. Bigarren Hezkuntza amaitzen ez duten gazteek, sarritan, ez dute enplegua lortzeko aukerarik izaten.

3.2.1.2 Historiokoa / Jatorria

Akazi Kanoze Access 2015ean sortu zen *Akazi Kanoze: Youth Livelihoods Development* proiektuaren iraunkortasun-ekimen gisa. Proiektu hori *Education Development Centerek* ezarri zuen 2009-2014 aldian, USAIDek finantzatuta, eta 14 eta 35 urte bitarteko 20.000 gazteri eman zien prestakuntza; horietatik % 75ek graduatu eta hurrengo sei hilabeteetan lortu zuten enplegua.

Akazi Kanoze Accessek Huguka Dukore Akazi Kanoze programa abiarazi zuen 2016an, hainbat erakunde eta elkarteren laguntzaz. Gazte-enpleguko programa horrek bost urteko iraupena du (2016-2021), eta eskolatu gabeko 40.000 gazteri zuzentzen zaie.

3.2.1.3 Ikuspegi metodologikoa

Akazi Kanoze Accessen ikuspegi metodologikoa **hainbat berrikuntzatan** oinarritzen da.

Lehenik, Akazi Kanoze Accessek aktiboki lagundu du enpresa-espirtua erdigunean jartzen duen ikasketa-plan bat ezartzen. Huguka Dukore Akazi Kanozerekin, enpresa-espirtua oinarritzko gaitasuntzat hartzen da; hots, ruandarrek enplegu-aukerak sor ditzaten bermatzeko elementu gakoa da, besteen beharra izateko pentsamoldeari uko egin diezaioten.

Bigarrenik, Akazi Kanoze Accessek gauzatutako formakuntzak **enplegurako prestatzeko ikuspegiaren barruan daude**, eta horien helburua da enpresaburu ruandarrek gehien eskatzen dituzten gaitasunak eskuratzea.

Gaikuntza lehen pausoa besterik ez bada ere, Huguka Dukore Akazi Kanozek abian jarri ditu gazteei laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak; esate baterako, kapitalerako, tutoretzarako, sare profesionaletarako eta abarretarako sarbideak.

Enpresa-espirtua oinarritzko gaitasuntzat hartzen da; hots, ruandarrek enplegu-aukerak sor ditzaten bermatzeko elementu gakoa da, besteen beharra izateko pentsamoldeari uko egin diezaioten.

Akazi Kanoze Accesseren bitartez, **irakasteko eta ikasteko estrategia eta metodo berriak ere sustatu izan dira**. Ikasketa-plan berriak, **zeinak gaitasunetan oinarritutako metodoak eskaintzen baititu, irakasleak bultzatzen ditu berritzaileak izatera eta beren ingurura moldatutako metodoak aurkitzera**.

Akazi Kanoze Accessek gogotsu sustatu du ekintzaileen klubengatik pedagogia ere.

Azkenik, Akazi Kanozek **hein handian lagundu dio Ruandako hezkuntza eta prestakuntza tekniko eta profesionaleko sektorearen erreformari (EFTP)**. Haren ekarpenen artean honako hauek daude: (i) gaitasunetan oinarritutako prestakuntzaren sustapena (*competency based training*) eta gaitasunetan oinarritutako ebaluazioa (*competency based assessment*), praktika zaharrei amaiera emateko; (ii) lanerako prestatzeko programen garapena eta aplikazioa; eta (iii) kualifikazioesparru berri baten sustapena.

3.2.1.4 Inklusibitatea

Huguka Dukore Akazi Kanoze bigarren aukeraren eskolatzat har daiteke; izan ere, hezkuntza nahikorik edo egokiturik jasotzeko aukerarik ez izateagatik, lan-merkatuan **egoera zaurgarrian** dauden horientzat da (proiektu honen bidez prestatutako gazteek 6 eta 9 urte arteko eskolatzeko dituzte). Enplegua edo gazteen enpresa-espirtua babesteko programa tradizionalak ez bezala -Afrikan hiriko gazteei zuzentzen zaizkienak-, Huguka Dukore Akazi Kanozek **Ruandako eskualde guztietako gazteak biltzen ditu**: landa-eremuak, hirietakoak eta hirien periferietakoak (ikasleen % 45 landa-eremuetatik datoz). Halaber, **Huguka Dukore Akazi Kanozek genero-berdintasuna sustatzen du (emakumeak dira onuradunen % 51)**, baita desgaitasunak dituzten gazteen inklusioa ere. Egunean 1,75 USD baino gutxiago irabazten dituzten gazteentzako programa ere badenez, Huguka Dukore Akazi Kanozek behar handienak dituzten gazteak jartzen ditu erdigunean, eta, horren bitartez, giza inklusioa sustatzen du.

Azkenik, *Akazi Kanoze Accesek*, batzuetan, bereziki zaugarriak diren taldeentzako programak prestatzen ditu (adibidez, errefuxiatuentzat).

3.2.1.5 Finantzaketa eta eredu ekonomikoa

Helburuak **modu iraunkorrean lortzeko baliabideak mobilizatzeko**, *Akazi Kanoze Accesek* hiru ikuspuntu erabiltzen ditu. Lehena hainbat maileren baliabideak edo funtsak biltzea da (maileen artean, batik bat, USAID), baita programak azpikontratatzeko ondo ezarritako GKE-ekin elkartzea ere. Bigarrenik, **enpresa pribatuei ordaintzeko zerbitzuak emateko aholkularitza-negozio bat garatzen ari da** *Akazi Kanoze Access*. Azkenik, ordaintzeko zerbitzu egokiak garatzen ditu, zeinak gazteei saltzen edo komertzializatzen baitzaizkie unibertsitateen, lanbide-heziketako eskolen, elizen eta sektore pribatuko enpresaburuen bidez. Hori dela eta, *Akazi Kanoze Access*en negozio-ereduak denboran zehar eboluzionatu egin du. Proiektuaren hasieran, finantzaketa kanpoko zen erabat, eta, bigarren fasean, plana iraunkorra bihurtu nahi zenez, finantzaketa-iturriak dibertsifikatu egin dira, eta errekurso propioen proportzioak goranzko joera hartu du.

3.2.2 Ebaluazioa

Lortutako emaitza nagusiak

Huguka Dukore Akazi Kanozek (2016-2021) honako emaitza hauek lortu ditu¹:

- Lan egiteko gai diren pertsona bihurtzeko **27.774 gaztek** eman zuten izena. Gazte horiek *Work Ready Now* prestakuntzara bertaratu eta enplegua lortzeko beharrezko zeharkako gaitasunak bereganatu zituzten; esaterako, laneko segurtasuna eta osasuna eta finantza-aurrezpena.
- Programa amaitu zuten gazteetatik, **17.498** enplegatu edo autonomo gisa identifikatu ziren.
- **4.334** gaztek (horietariko % 61 emakumeak) nekazaritza-industriako aukerekin lotutako gaitasunak eskuratu zituzten.
- **13.000** gaztek baino gehiagok eduki zituzten finantza-zerbitzuak (formalak eta informalak).
- **1.594** gaztek laguntza jaso zuten bankuko kontu bat irekitzeko. *Akazi Kanoze Accesek* konpromisoa du gazteen garapena bultzatuko duen kapitalerako sarbidearekin, eta, konkretuki, gazteei eskaintzen die laguntza, finantza-erakundeekin harreman sendoak sortzeko.
- **8.242** gaztek jaso dituzte prestakuntza eta/edo ikasketa osagarriak, batez ere, beren ezagutzak hedatu edo sakontzeko.

1

Kopuru horiek 2020koak dira, eskuragarri dauden azkenak.

Berriki egindako ikerketa batek (Uwanyirigira eta Rusibana, 2020), zeinaren helburua *Huguka Dukore Akazi Kanoze* proiektuaren eta haren errendimenduaren irismenaren faktore erabakigarriak analizatzea baita, honako informazio hau plazaratu zuen:

- Inkestaturen % 80 ados daude honako honekin: *Huguka Dukore Akazi Kanoze* proiektuak produktibitate edo emaitza altuak ditu.
- Inkestaturen % 80k iritzi zuten *Huguka Dukore Akazi Kanoze* proiektuak interesdunek espero zutena betetzen zuela.
- Inkestaturen % 66,7 bat datoz honako honekin: *Huguka Dukore Akazi Kanoze* proiektuak kostu/onura harreman ona du.
- Inkestaturen % 66,7 bat datoz honako honekin: *Huguka Dukore Akazi Kanoze* proiektuak ezarritako epeak betetzen ditu.

Akazi Kanoze Access programetara bertaraturako gazte gehienek uste dute honako hauek garatu ahal izan dituztela: (i) **konfiantza- eta autoestimua-sentimendu indartsua**; (ii) **inguru profesional batean komunikatzeko eta elkarri eragiteko gaitasuna**; (iii) **helburu argi, neurgarri eta eskuragarriak ezartzeko gaitasuna**; eta (iv) **ekintzaile izateko, moldatzeko eta espiritu sortzailea izateko gaitasunak**.

Efizientzia eta errentagarritasuna

Akazi Kanoze Accessen efizientzia **lan-munduan txertatzeko maila altuen bitartez neur daiteke (prestakuntza amaitu eta hurrengo sei hilabeteetan % 65 baino altuagoa)**, edo enpresaburuen gogobetetasunaren bitartez (% 90 baino altuagoa). Espero da *Huguka Dukore Akazi Kanoze* programak 20 milioi dolar inguru mugiaraztea bost urtean zehar (2016-2021). Aintzat hartuta aipaturako proiektuaren emaitzak, kostuaren eta onuraren arteko harremana oso interesgarria dela ondoriozta dezakegu.

Iraunkortasuna

Akazi Kanoze Access 2015ean sortu zen **GKE ruandar estatusarekin**, USAIDen finantzaketarekin *Education Development Center* zentroak ezarritako *Akazi Kanoze: Youth Livelihoods Development* proiektuaren iraunkortasun-ekimen moduan. Era berean, ordurako, *Akazi Kanoze Access*ek iraunkortasun logikari jarraitzen zion, bere sorreran helburu zuelako Ruandan proiektuaren jarduerak bizirautea bermatzea. Ezarritako finantzaketa-ereduak, eta, zehatzago, baliabide propioen mobilizazioestrategia bidezko finantzaketa-iturrien bidertsifikazioak, *Akazi Kanoze Accessen* jardueren iraunkortasuna ere ahalbidetu dezake.

Erreproduzitzeko eta errepikatze gaitasuna

*Akazi Kanoze Access*ek garaturako eredua Afrikako hainbat herrialdetara hedatzen hasi da; haien artean, Senegalera, batik bat, *Senegalen Laneko Errendimendua eta Enpresa Espiritua Hobetzeko Proiektuaren* bidez (APTE-Senegal). APTE-Senegal proiektua Bigarren Hezkuntzako zentroetako (200) 23.000 gazteri eta Lanbide Heziketako zentroetako (50) 7.000 ikasleri bideratuta dago, baita unibertsitate publiko eta pribatuetako 500 ikasleri eta 1.600 irakasleri baino gehiagori ere.

Akazi Kanoze Accessek garaturako eredua Afrikako hainbat herrialdetara hedatzen hasi da; haien artean, Senegalera.

Ikasitakoak

Akazi Kanoze Acceseko esperientziatik ondorioztatzen den lehen irakasgaia da hezkuntzak hobeto funtzionatzen duela pragmatikoa, zehatza eta funtzionala denean. Ikasketak amaitu bezain laster, eskuratutako gaitasunak bizitza errealeko egoeretan aplikatzeko gaitasuna lortu behar da, eta horrek ikasleen motibazioari eragiteko aukera ematen du, bai kanpotik (diru-sarrera altuagoak, lanpostu hobeak, etab.) bai barnetik (autoestimua, gogobetetze pertsonala, bizi-kalitate hobeak, etab.).

Akazi Kanoze Acceseko esperientziak, gainera, aurreiritzi bat desmuntatzen du; izan ere, uste da Afrika dela munduan enpresa-espirtua azpigaratuen dagoen eskualdea.

Edonola ere, ideia horrek kontra egiten die *Global Entrepreneurship Monitoren* (GEM) ikerketaren ondorioei, zeinek adierazten baitute enpresa-jardueraren tasa (TAE²) bereziki altua dela Afrikan: % 15 inguru, munduan % 9,6koa den bitartean (GEM, 2004, 2015).

Orain argi dago **Afrikako eskolek ez dutela ekintza-ahalmen nahikoa garatzen. Ez diete ikasleei bizi-baldintzak hobetzeko adina irakasten, eta lehentasuna ematen diote ezagutzak metatzeari edo eguneratzeari.** Hala ere, garapen bidean dagoen herrialde batean, zertarako balio du hezkuntzak ez badie pertsonari laguntzen pobrezia gainditzen eta diru-sarreretarako sarbidea errazten?

Lehentasunak eguneratu egiten dira, nolabait, beren gaitasunak areagotu eta enplegarritasuna hobetzeko ahalegina egiten dutenean, enpresak sortzeko proiektuetan lagunduz eta beren enpresa-gaitasunak indartuz. Gehiengo demografikoa diren eta/edo ekonomiari hein handiagoan lagundu diezaieketen eskolatu gabeko gazteak erdigunera ekarrita eta beren gaitasun eta ezagutzak hedatzeko aukera emanda, **Akazi Kanoze Accesek, giza justiziaz gain, efizientzia ekonomikoa ere sustatzen du.**

3.3 BESTE ESPERIENTZIA BATZUK

Adibide gisa, labor aurkeztuko ditugu emantzipazio-helburuak dituzten Afrikako esperientzia batzuk³.

3.3.1 Malikaren Daara (Senegal)

Malikaren *Daarak* (Dakarretik 25 kilometrora dago, ipar-ekialdera) **egunero 200 gazte talibé inguru artatzen ditu** (kaleko haurrak, haur eskaleak), edo familia txiroetako 6 eta 14 urte bitarteko haurrak. Horrez gain, 70 haur artatzeko barnetegi bat ere badu. Aldi berean, erakundea ahalegintzen da **bere egoiliarren artean erantzukizun-zentzua sortzen eta integrazioa sustatzen, benetako enpresa txiki bihurtu den horretan.** Dakarreko hiri-zabortegeitik gertu dagoen arren, ghetto-bizitza saihesten saiatu da, eta, horretarako, bere bizitza-esparrua eta

2 GEMek honela definitzen du enpresa-jarduera: biztanleria osoaren 18 eta 64 urte bitarteko helduen proportzioa, baldin eta enpresa berri bat abian jartzen aktiboki parte hartzen badute edo enpresa bat zuzentzen 42 hilabete baino gutxiago badaramate.

3 Jarraian aurkezten diren 2., 3. eta 4. esperientziak *Le Monde Afrique* argitaratutako txosten batekoak dira, «L'école africaine réinventée» izenburupean. Txosten horretan Afrikako sei hezkuntza-esperientzia berritzaile aurkeztu ziren. Horri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus: https://www.lemonde.fr/afrique/article/2020/02/24/presentation-de-notre-serie-l-ecole-africaine-reinventee_6030679_3212.html

azpiegiturak (osasun arretarako postu bat, liburutegi bat, etab.) jarri ditu eremu latzetan bizitzera kondenatutako neska-mutilen esku. Modu horretan, inguruan bizi diren nesken eskolatzea sustatu du, eta gazteen eskaletasunaren eta delinkuentziaren aurkako kanpaina babestu du.

Inguruan bizi diren nesken eskolatzea sustatu du, eta gazteen eskaletasunaren eta delinkuentziaren aurkako kanpaina babestu du.

Malikaren *Daararen* oinarria da haurraren hezkuntza globala eta Senegaleko ohiturekiko errespetua.

Han ematen diren ikastaroen artean daude frantsesa, arabiera, korana, wolof hizkuntza, matematikak eta natur zientziak, ikasleek oposizioetara eta azterketa ofizialetara aurkezteko aukera ematen dien irakaskuntza publikoaren maila lor dezaten.

Malikaren *Daarak*, dagoeneko, gazteen hiru belaunaldi prestatu ditu, eta, maiz, erraza izan da horiek gizartean berriro sartzea. Horietako askok, gero, ikasketa onak egin ahal izan dituzte edo enpresa-proiektuak gauzatu ahal izan dituzte artisautza- edo nekazaritza-sektoreetan. Denbora luzez, *Daararen* emaitzek nazioko batezbestekoa gainditu izan dute.

3.3.2 Bigarren Aukerako Eskola (Etiopia)

2011tik, *Luminos* Funtsak Bigarren Aukerako Eskolen Sarea garatu du Etiopian. Eskola horiek hartzen dituzten ikasleek 9 eta 14 urte artean dituzte. Udallerri bakoitzeko haur txiroenak hautatzen dira. Eskola horietan erabiltzen den pedagogiak bereziki azpimarratzen ditu arau aritmetikoak menderatzea eta jendaurrean adierazteko gaitasuna. Ikasleek eskolatze azkarra jasotzen dute: egunean zazpi eskola-ordu, astean sei egunetan. Irakaskuntzaren zati bat tokiko hizkuntzetan egiten da. Saio bakoitzaren amaieran, irakasleek egiaztatu egin behar dute ikasleek irakasgaia ulertu dutela, eta ikasleei ebaluazio bat ere eskatuta behar diete. Ikasleak aseta ez badaude, irakasgaia errepikatu egin beharko da denbora librean.

Geneva Globalen zeregin nagusia da **gurasoak ikaskuntzaren erabilgarritasunaz konbentzitzea**. Xede horretarako, amak sentsibilizatzeko taldeak sortu ditu. Helburua hori izanik, Geneva Globalek programa bat jarri du abian, ehunka amari aukera emateko aurrekontua hobeto kudeatzen ikas dezaten edo ingeles-maila hobetu dezaten. Seme-alaben hezkuntzaren balioa ulertarazteko zeharkako modu bat da, eta erakusten zaie hezkuntzak eurei ere laguntzen diela hilero diru gehiago aurrezten.

Eskola-sistema arrunteko arrakasta- eta berrintegratze-indizeak oso handiak dira. Ikastaro horietako gazteen % 75ek eskolan matrikulatuta jarraitzen zuten programa utzi eta bost urtera; sistema tradizionalan, berriz, % 66k. Guztira, *Luminos* Funtsak 113.000 umeri eman die aukera irakurtzeko, idazteko eta kontatzeko Etiopiako Bigarren Aukera programaren bidez.

3.3.3 Kabakoo, ikasketa klasikoen planak osatzen dituen eskola (Mali)

Kabakoo (Maliko hiriburuko banbara hizkuntzan «harridura» esan nahi du) ez da eskola bat, ezta prestakuntza-zentro bat ere. Hezkuntza-egitura hibridoa da, ez du ez eskola formalik, ez ordutegirik. Borondatez hibridoa den egitura bat da, Bamakon dago, eta bere «ikastunei» ikasten ari direnaz bestelako lanbide bat irakasten die. *Kabakoo* proba-fasean dago, eta ez ditu ohiko hezkuntza-egiturak ordezkatu nahi, osatu baizik. Hala, 2018ko uztailetik 2019ko

urrira bitartean bertan aritu ziren 15 eta 35 urte bitarteko 479 «ikastunen» % 80 ohiko eskola-edo unibertsitate-programa batean matrikulatuta daude. *Kabakoo* eskolan, **ikasleak nahierara joaten dira tailer tematikoetara**, zuzenean Italiatik, Txinatik edo Estatu Batuetatik **egiten dituzten bideokonferentzien bidez**. Ez zaie «ikasle» deitzen, «ikastun» baizik, eta horiek gogoko izaten dute *Kabakoon* gaueko 11:00ak arte geratzea edo gau osoa bertan pasatzea.

3.3.4 Sésame, unibertsitaterako sarbidea irekitzen duen programa (Madagaskar)

Batxilergoa ikasten ari diren 72 ikasleri honako eskaintza hau egiten zaie urtero: prestaketako urtebete eta karrerako hiru urte, gastu guztiak ordainduta.

Eskola honetan, **ikasleek ez dituzte ikasgelan deskubritzen ikasten dituzten kontzeptuak. Aldez aurretik beren kabuz egiten dute lan kontzeptua integratzeko eta gero irakasleen presentzia hobeto baliatzeko. «Alderantzizko pedagogia»**

deitzen zaio. Ikasleei aldez aurretik ematen dizkiegu irakasgaiak, plataforma informatiko baten bidez. Eurei dagokie horiek asimilatzea eta irakasleengana jotzea zalantzarik badute. Irakasteko metodo hori irakasgai guztietan aplikatzen da, eta nerabeen autonomia garatzen du; hortaz, aktiboki ikastera behartzen ditu.

Hemen ez da buruz ikasten; aztertu, hausnartu eta ahozko aurkezpenak egin behar izaten dituzte.

Hemen ez da buruz ikasten; aztertu, hausnartu eta ahozko aurkezpenak egin behar izaten dituzte. Hautatutako gazteek bide luzea egin dute. Baina, badute gaitasuna eta eskolak hura garatzen lagundu behar die. Ikasleak barnetegi batean bizi dira prestaketa-urtean, dozena bat hezitzailek eta irakaslek gainbegiratuta.

«Klasikoak» izeneko ikastaroez gain, **norbera garatzeko saioak daude: espiritualtasuna, sexu-hezkuntza, lan-orientazioa, eta abar**. Luzea da garatu daitezkeen trebetasunen zerrenda. Ugariak dira iparrorratz gisa balio dezaketen eta herritar osoak eratzen laguntzen duten trebetasunak. Programa horretan, film laburren proiektioek eta eztabaidek ere badute lekua. Garrantzitsua da ikasleek euren buruarengan konfiantza garatzea, lana biltzeko orduan nabarmendu daitezen.



4. ATALA EZTABAIDAK ETA GOMENDIOAK



4.1 EZTABAIDAK: EMANTZIPAZIOA ABIAPUNTU IZANIK, AFRIKAKO HEZKUNTZA ETA ERREFORMAK BERRIZ ERE ZALANTZAN JARTZEA.

4.1.1 Afrikako eskola: transmititzearen eta emantzipatzearen arteko etengabeko tirabirak

Transmititzea ikasleak erantzunak ikastea da, hura jaiotze aurretik zeuden ezagutzak ikastea. Transmisio horretan autoritate-harreman bat egon behar da. Emantzipatzea, ordea, esperientzia baten bidez zalantza jartzen ikastea da, eta esperientzia hori beste irudikapen-modu batzuk bezain baliozkoa da. **Aspaldidanik, Afrikako eskolak aurreratu egin behar dituzte transmititzearen eta emantzipatzearen arteko etengabeko tirabirari.**

Tirabira hori eskola kolonialetik dator; izan ere, eskola hark ez zuen asmorik ez eskolatze adina zuten guztiak hartzeko, ez adimendunak osatzeko, ezta gizaki emantzipatuak eratzeko ere; asimilatu eta alienatu egin nahi zituen.

4.1.2 Eskolaratzearen arrakasta, ez duena zertan eskolarena izan

Afrikan, nahiz eta eskolatzea gizartearen orokortzeko joera dagoen, **masifikazio soziala da nagusi.** Dena den, eskolaratzearen arrakastak ez du zertan halaberrez eskolaren arrakasta izan, **masifikazioa ez baita demokratizazioaren edo emantzipazioaren baliokidea izan.** Eskolaratzearen arrakastak ez du zertan halaberrez eskolaren arrakasta izan, baldin eta eskolatzea mendekotasun sozialetik urrun ikastea bada, gauzen ordena zalantza jartzeko gai diren gizabanako kritikoak prestatzea bada, aurkitutako disfuntzioei buruz hausnartzea bada, alternatibak imajinatzea bada, alternatiba horiek praktikan jartzeko beste batzuekin mobilizatzea bada, eta abar.

Gainera, **iraupen luzean eskolatzea biztanleria osora zabaltzeak bat egin dezake,** arazo ekonomiko eta profesionalak tarteko, eskola gehien instrumentalizatzen den garaiarekin. Eskolaratzeak eta tituludunen kopurua handitzeak ez ditu batere murriztu Afrikako kultura- eta gizarte-desberdinkeriak; izan ere, eskuratutako tituluei esker lortzen den mugikortasunak eta gizarte-sustapenak onura gutxi ekartzen diete oraindik ere herriklaseetako seme-alabei.

Guztionezko hezkuntzaren aurrerapenak (kuantitatiboa), orain (garapen-bazkideen eraginpean edo agindupean) Afrikako hezkuntza-sistemak ebaluatzeko irizpide nagusia denak, zoritxarrez ez ditu kontuan hartzen hezkuntza txarraren ondorioak.

Hezkuntzarako sarbidea ez da neurtzen ikasleen etorkizunaren arabera (hezkuntzaren ondoren). Halaber, ikaskuntzaren lorpenak eskola-programei eta ikaskuntzaren edukiei buruzko hausnarketa kritikoak egin gabe neurtzen dira. Guztionezko hezkuntza ala guztionezko hezkuntza txarra?

Ikaskuntzaren lorpenak eskola-programei eta ikaskuntzaren edukiei buruzko hausnarketa kritikoak egin gabe neurtzen dira.

4.1.3 Gaitasunen ikuspegira itzuli?

Gaitasun bat (edo «funtsezko askatasuna»), A. Senek proposatutako definizioaren arabera, gizabanako batek «funtzionatzeko modu» batzuen konbinazioak hautatzeko duen benetako trebetasuna da (adibidez, elikatzea, mugitzea, hezkuntza izatea, bizitza politikoan parte hartzea, etab.). Hortaz, «**gaitasuna**» da «**gizakiek balioetsutzat jotzen dituzten ondasunen artean hautatzeko eta horiek benetan lortzeko duten aukera**». Senen arabera, garapena sustatzeko eta pobreziatik ateratzeko ezinbesteko oinarritzko gaitasuna da hezkuntza.

Eginkizun garrantzitsua du beste gaitasun batzuk indartzeko, garapenaren dimentsioen arteko lotura dela eta. Ikuspuntu horretatik, ez da nahikoa pertsonen irakurtzen eta idazten irakastea; ulertzeko eta jarduteko gaitasuna garatu dezaten da xede nagusia. **Hezkuntza afrikarrak garatzen al du gaitasun hori pertsona gehientzat?**

Garapena sustatzeko eta pobreziatik ateratzeko ezinbesteko oinarritzko gaitasuna da hezkuntza.

Beraz, gaitasunen araberako ikuspegian (Saito, 2003), zalantzan jarri behar dira hezkuntzaren bi funtzio nagusiak. Lehenik eta behin, **hezkuntzak sustatzen al du Afrikan beste gaitasun batzuk hedatzea**, eta, beraz, areagotzen al du gizabanakoei aurkeztu zaien aukera-multzoa? Bigarrenik, **hezkuntzak ahalbidetzen al du** pertsonen jardutean errespetatu beharreko **balio moralen transmisioa**? Alde horretatik, planteatzen al da **gizabanakoen autonomia**, euren erantzukizunaren zentzua eta integrazioa **indartzeko helburua**? Bizitzarako hezkuntzak (*life skills education*) leku garrantzitsua al du Afrikako hezkuntza-sistemetan?

Ezin izango da gizarte-aldaketarik espero, Afrikako hezkuntzak ezagutzen transmisioa edo, besterik gabe, langileen kualifikazioaren hobekuntza erdigunean jartzen duen bitartean eta ikasleen bizitzarako gaitasunak indartzea helburu ez duen bitartean (horrela, aurre egin beharreko aukera-sorta zabalduz).

4.1.4 Emantzipazioa: Afrikako eskolarentzako proiektu politikoa ote?

Afrikako hezkuntza-sistemen lehentasunezko helburua al da egokitzen den, gauzen ordena onartzen duen, pentsamendu-modu menderatzaileak hartzen dituen eta gizartean botere-harremanaren arabera lekua hartzen duen gizabanakoa eratzea? Edo helburu da gauzen ordena zalantzan jartzeko, aurkituko dituzten disfuntzioei buruz hausnartzeko, alternatibak imajinatze eta horiek praktikan jartzeko beste batzuekin batera mobilizatzeko gai diren gizabanako kritikoak osatzea? Afrikako botere politikoen (berriz ere) bi aukera horien artean hautatu beharko dute.

Afrikako eskolaren berreraikuntza politikoaren lehen pausoak **hezkuntzaren zerbitzu publikoari** norabide argia eman beharko dio. Izan ere, hezkuntza-sistemak merkaturatzeak, Afrikan ere, ondorio larriak eragin ditu, bai eskolak pribatizatzearen bidez (kasu horietan, eskola pribatuek sistema publikoa irentsi dute), bai eskola-erakundea etengabe merkataritza-logikaren eta/edo ideologia liberalaren mende jartzearen bidez. Hala ere, hezkuntza ondasun publikoa da, eta hala izaten jarraitu behar du; baina, horretarako, **Estatuak guztientzako sarbidea bermatu behar du, berdintasun- eta ekitate-printzipioak errespetatuta.**

Norabideari eusteko, beharrezkoa da Afrikako hezkuntzaren eginkizunak argitzea, eta helburu argi eta zehatz gutxi batzuk finkatzea, zeinei botere politikoen gero eta arreta gutxiago eskaini baitiete edo zeinak bertan behera utzi baitituzte. Horregatik, bereziki garrantzitsua da diskurtso solemneak alde batera uztea eta berriz ere oso gauza zehatzetan zentratzea: haur

guztien gaitasunak areagotzea (hori ez da ezagutzen transmisiora mugatzen); horiei gizartean ondo integratzeko beharko dituzten trebetasunak ematea; herritar kritikoak sortzea, zeinek gizarte-ordena aldatzeko eskatzen duten mugimenduei jarraitzeko gai izango baitira, justizia, ekitate eta demokrazia handiagoa lortze aldera; eta abar.

Afrikako eskolaren berrikusketa politikoak konpromiso handia eskatzen du nagusiki emantzipatzailea den hezkuntzarekiko; hezkuntzahoriedonolakomenderakuntzarik gabeko gizarterantz bideak irekitzeko gai da, eta baita haur, nerabe, gazte eta helduen bizitza eraldatzeko gai ere, gogoetaren,

Afrikako gizarteak eta ekonomiak eraldatzea helburu duten larrialdi-planak gauzatzeko unean, aurretiazko baldintza gisa aurkezten da hezkuntza emantzipatzailea.

elkarrizketaren, pentsamendu kritikoaren, zalantzan jartzeko, bereizteko, irudikatzeko eta beste mundu posible batzuen alde jarduteko gaitasunaren inguruan. Paulo Freirek esan zuen bezala: «Hezkuntzak berak ez du mundua aldatzen, baina hezkuntzarik gabe ezinezkoa da mundua aldatzea». Eskola aldatzen hasi aurretik ere ezin izango dugu mundua aldatu. Hezkuntza emantzipatzailearik gabe, asmo ona besterik ez da izango hain gogotsu espero dugun Afrikaren eraldaketa. Afrikako gizarteak eta ekonomiak eraldatzea helburu duten larrialdi-planak gauzatzeko unean, aurretiazko baldintza gisa aurkezten da hezkuntza emantzipatzailea.

Zalantzarik gabe, **Afrikako eskolen berrikuste politikoa ez da erraza izango;** izan ere, ezin da eskolaren aldaketarik planteatu, gizarte osoa aldatu gabe, eta, bereziki, mota guztietako menderatze, esplotazio eta indarkerien aurka borrokatu gabe. Hori dela eta, indar kontserbadoreek gogor egingo diote aurre ideia horri, baina Afrikak ez du alternatibarik: «garapena, giltzak buruan izanda» printzipioak berrikuspen hori eskatzen du. Afrikako krisiak (politikoa, ekonomikoa, soziala, etab.) hezkuntza-krisiak ere badira (bizitza osoko hezkuntza gisa ulertuta), hezkuntzaren edukiaren eta zentzuaren krisia alegia; izan ere, progresiboki kendu egin zaio bere dimentsio politikoa, eta, bereziki, beste ordena ekonomiko eta sozial batean pentsatzeko eta kontinenteak dituen krisi sakon eta konplexuak gainditzeko gai diren herritarrak prestatzeko eginkizuna.

4.2 GOMENDIOAK

Lan honen amaieran, eta aurreko garapenak kontuan hartuta, honako gomendio hauek egin dira:

1

HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEA, POLITIKAREN ETA PRAKTIKAREN IKUSPEGITIK

- Afrikako eskolei eginkizun emantzipatzaileagoa ematea. Bereziki, bermatzea Afrikako eskola gizarte-emantzipaziorako, gizarte-bizitzarako prestatzeko, gizarte-justiziarako, gizarte-kohesiorako eta gizarte eraldatzeko faktorea dela.
- Genero-desberdinkeraren aurkako borrokari lehentasuna ematea.
- Afrikako eskolei zeregin nabarmenagoa ematea pertsonen ahalduntzeari dagokionez edo desberdinkeraren zein pobrezia aurkako borrokei dagokienez.
- Afrikako eskolen deskolonizazio-prozesua osatzea.
- Hezkuntza emantzipatzailea sustatzen duten Afrikako ekimen eta esperientziak gehiago babestea.

2

HEZKUNTZA-POLITIKEN IKUSPEGITIK

- Afrikako hezkuntza-erreformako proiektuetan, garrantzi handiagoa ematea, batetik, hezkuntza tradizionalaren herentziari, eta, bestetik, Afrikako hezkuntza-pentsalari garaikideen lanari (Joseph Ki-Zerbo, Julius Nyerere, Amadou Makhtar Mbow, eta abar).
- Hezkuntza gizarte afrikarrek lortu nahi dituzten helburuei hobeto egokitzen zaiela bermatzea.
- Afrikako hezkuntza ebaluatzea emantzipazioaren iragazkiaren bidez. Kanpoan zehaztutako eta adierazle neurgarrien eta konparagarrien bidez formulatutako emaitzak neurtzeko irizpideen arabera soilik ebaluatzeari uztea.
- Afrikako hezkuntza-erreformak erantzun politikoak behar dituzten gai politikotzat hartzea.
- Afrikako hezkuntza-sistema publikoari dagokion tokia itzultzea.
- Hezkuntza-eredu edo -egituren dibertsifikazioa sustatzea eta, bereziki, herrieskola emantzipatzaileen sarearen sorrera sustatzea.
- Onartzea Afrikako eskolek hainbat forma izan ditzaketela (instituzionalak, antolaketakoak, pedagogikoak, etab.) eta, beraz, hezkuntza eskolatzearekin sistematikoki parekatzeari uztea eta/edo eskolak hezkuntza-arloan duen monopolioa zalantzan jartzeari uztea.
- Afrikako eskolen gizarte-masifikazioaren eta horien demokratizazioaren arteko bereizketa egitea. Bereziki, aitortzea Afrikako hezkuntzak gehiago aurreratu duela masifikazioari dagokionez demokratizazioari dagokionez baino.

3

ERAKUNDEEN EDO ANTOLAKETAREN IKUSPEGITIK

- Hezkuntza emantzipatzailea defendatuko duen sare afrikar baten sorrera sustatzea eta babestea.
- Alde interesdun guztiak aintzat hartzen dituzten hezkuntza-gobernantzako eredu inklusiboagoak sustatzea, ez soilik hezkuntzako profesionalak aintzat hartzen dituztenak (irakasleak, pedagogoak, hezkuntza-administratzaileak, etab.)

4

ZIENTZIAREN IKUSPEGITIK

- Afrikako hezkuntza emantzipatzaileari buruzko ikerkuntza eta lana sustatzea (pizgarri finantzarioen eta ez-finantzarioen bidez).
- Hezkuntza emantzipatzaileari buruzko zientzia-topaguneak antolatzea.
- Afrikako hezkuntza emantzipatzaileari buruzko zientzia-aldizkari bat sortzea.
- Afrikako hezkuntza emantzipatzailearen egoerari buruzko txosten bat argitaratzea urtero.

5

ESKOLAKO ALDE INTERESDUNEN IKUSPEGITIK

- Hezkuntza emantzipatzaileari dagokionez, garrantzi handiagoa ematea hezkuntzako langileen prestakuntzari (irakasleak, pedagoak, administratzaileak, etab.)



ONDORIOAK

XIX. mendean, «guztiontzako eskolaren» aldarrikapenen buru izan zen espirituak (batez ere, European) honako ideia hau azpimarratu zuen: **ezagutza eskuratzeak ikasleei beren kabuz pentsatzen eta espiritu kritikoa garatzen lagundu behar die**. Garai horretan sortu ziren eskolak Afrikan (gaur egun ezagutzen ditugun moduan). Hala ere, Afrikaren egoera historikoaren ondorioz (kolonizazioa), eskakizun horiek ez ziren kontinentean zehar zabaldu. Aitzitik, Afrikako eskola kolonialaren rola eta misioek independentzia formaleraino eboluzionatu zuten, potentzia kolonialen interesen arabera.

Afrikako eskola kolonialaren rola eta misioek independentzia formaleraino eboluzionatu zuten, potentzia kolonialen interesen arabera.

Zoritxarrez, independentzia horiek ez zuten zalantzan jarri eskolen rola edo funtzionamendua. Independentziak eskuratu eta denbora luze geroago, Afrikako eskolek eskola kolonialen imitazio txarra izaten jarraitu zuten. Halaber, Afrikan, independentziaren ondorengo hezkuntza-politikek **eskolatze unibertsalaren helburua izan zuten ardatz nagusitzat, zeina gizarte-masifikazioaren zentzuan ulertu baitzen batik bat**. Horren ondorioz, Afrikako hezkuntza-sistema horien errendimendua, funtsean, atzerritik definitu ohi diren adierazle kuantitatibo bidez neurtu izan da. Hala ere, eskolatzearen arrakastak ez du zertan halabeharrez eskolaren arrakasta izan. Beraz, gizarte-masifikazioaren zuhaitzak denbora luzean ezkutatu du eskola-arrakastaren gainontzeko dimentsioen basoa.

Beharbada, iritsi da Afrikako hezkuntza-sistemen emaitzak ebaluatzeko modua aldatzeko unea, eta, zehazki, ebaluazio hori gizartearen eskaera edo hezkuntza- zein eraldaketa-helburu batzuk (hala nola demokratizazioa edo emantzipazioa) aintzat hartuta egiteko unea.

80ko hamarkadaren hasieran, UNESCOk «*hezi ala hil*» aldarrikatu zuen. Gaur egun, Afrikako eskolei buruz ari garenean, «*aldatu ala hil*» aldarrikatu beharko genuke. Afrikako eskolen berreraikuntza politikoaren lehen pausoak norabide argia eman beharko dio hezkuntzaren zerbitzu publikoari. Afrikako eskolen berreraikitze politikoaren ardatz nagusietako bat izan liteke gizakien emantzipazioari rol garrantzitsuagoa ematea, eta, horretarako, edonolako menderakuntzarik gabeko gizarterantz bideak irekitzeko gai den hezkuntza emantzipatzailea sustatzea. Hain zuzen ere, **gazteen bizitza** (eta baita helduena ere) **aldatuko duen hezkuntza**, hausnarketaren, elkarrizketaren eta pentsamendu kritikokoaren inguruan ez ezik baita zalantzan jartzeko, ados ez agertzeko, imajinatzeko, jarduteko, gizarte-mendekotasunetik urruti ikasteko, gauzen ordena zalantzan jartzeko, aurkitutako disfuntzioei buruz hausnartzeko, alternatibak irudikatzen eta beste gizabanako batzuekin batera horiek praktikara eramateko mobilizatzen gai diren pertsona kritikoak eratzeko gaitasunaren inguruan ere.

Nahiz eta emantzipazioak Afrikako eskola berreraikitzen benetako aukerak eskaintzen dituen, ez gara erratu behar. Emantzipazioa osotasun bat da, eta, beraz, ezin da zatitu edo dimentsio bakar batera murriztu. Bestela esanda, **hezkuntza-emantzipazioak benetako zentzua edo irismena izateko, beharrezkoa izango da emantzipazio globaleko dinamika bat, zeinak kontuan hartuko baititu horren alderdi sozialak, politikoak, ekonomikoak, kulturalak, eta abar**. Baina hezkuntza-emantzipazioa lehen pausoa izan daiteke, eskolaren garrantzia aintzat hartuta, emantzipatzeko gainontzeko modu guztiak erraztu edo bideratzeko.

Zilegi da obra hau osorik edo zatika erreproduzitzea, edozein modu edo prozedura erabiliz, betiere iturria aipatuz gero eta helburu komertzialik gabe.

Dokumentu honetan jorratutako gaietarako buruz gehiago jakiteko, jo ezazu hona:
Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaina Euskadin: cme.euskadi@gmail.com
Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpaina Afrikan: ancefacom@gmail.com

eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak hau egiten laguntzeak ez du esan nahi bertako edukiak onartzen dituenik, egileen erantzukizuna baita guztiz. Beraz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia ez da erantzule egiten era honetan zabaldutako informazioaren erabileraz.



Réseau Ouest et Centre Africain de Recherche en Education
Educational Research Network for West And Central Africa

www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpainia



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VAŠCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA EMANTZIPATZAILEA AFRIKAN

ABDOUL ALPHA DIA

2021EKO OTSAILA - LABURPEN EXEKUTIBOA